

# **DIBORTZIOAREN TRATAERA GAUR EGUNGO**

## **HAUR LITERATURAN (2002-2018)**

### **GRADU AMAIERAKO LANA**

**EGILEA: GONZALES MUÑOA, PRISCILLA MILAGROS**

**ZUZENDARIA: ARNAL GIL, JAVIER IGNACIO**

**2018-2019**

## RESUMEN

Este trabajo tiene como objetivo principal analizar de qué manera se ve reflejado el divorcio en la literatura infantil actual (2002-2018). Para ello, en primer lugar, hemos confeccionado un marco teórico, en el que hemos desarrollado los siguientes puntos: definición de literatura infantil, divorcio, influencia del divorcio en el desarrollo de los niños (0-12 años) y reacciones de estos, relación entre los padres después del divorcio y custodia compartida. A continuación, hemos procedido a explicar el proceso seguido en la investigación, esto es, la definición del objeto de estudio, los objetivos fijados, las hipótesis, el procedimiento de recogida de información y el análisis de la misma, los instrumentos y el *corpus* de estudio. En esta última parte se podrán encontrar doce obras infantiles publicadas en castellano y euskera durante el periodo 2002-2018, y que tienen como tema principal el divorcio. Una vez realizada la investigación, hemos mostrado los resultados obtenidos y las conclusiones extraídas de los mismos. Finalmente, hemos propuesto tres aspectos para mejorar y hemos hecho referencia a las fuentes bibliográficas.

**Palabras clave:** Divorcio, familia, literatura infantil, educación infantil.

## LABURPENA

Lan honen helburu nagusia dibortzioren trataera gaur egungo haur literaturan (2002-2018) aztertzea da. Lehenik eta behin, marko teorikoa aurkeztuko dugu eta atal horretan hurrengo puntuak garatuko dira: haur literaturaren definizioa, dibortzioa, dibortzioren eragina haurren garapenean (0-12 urte) eta horien erreakzioak, dibortziatu ondorengo gurasoen arteko harremana eta zaintza partekatua. Jarraian, ikerketaren atalak azalduko dira, hau da, ikerketaren helburu nagusia, gainerako helburuak, hipotesiak, informazio bilketarako eta horren analisirako prozedura, baliabideak eta *corpus* literarioa. Azken zati honetan hamabi obra aurkituko ditugu, 2002tik 2018ra gazteleraz eta euskaraz argitaratuak, eta dibortzioaren gaia jorratzen dutenak. Ikerketa egin ondoren, emaitzak eta ondorioak aurkeztuko dira. Bukatzeko, hobetzeko hiru alderdi proposatu eta erabilitako iturri bibliografikoak aipatuko dira.

**Hitz gakoak:** Dibortzioa, familia, haur literatura, haur hezkuntza.

# AURKIBIDEA

1. SARRERA .....	1
2. MARKO TEORIKOA .....	2
2.1 Haur literatura.....	2
2.2 Gaur egungo haur literatura, dibortzioa eta familia eredu berriak.....	4
2.3 Dibortzioa .....	5
2.3.1 Definizioa, estatistika eta motak .....	5
2.3.2 Dibortzioaren eragina haurraren garapenean (0-12 urte) .....	8
2.3.3 Haurrek dibortzioaren ondorioz dituzten erreakzioak.....	11
2.3.4 Dibortziatu ondorengo gurasoen arteko harremana .....	14
2.3.5 Zaintza partekatua .....	15
3. METODOA .....	16
3.1 Ikerketaren helburu nagusia .....	16
3.2 Helburuak .....	16
3.3 Hipotesiak eta galderak. Ikerketarako proposamenak.....	17
3.4 Informazio biltzetarako eta horren analisirako prozedura .....	18
3.5 Baliabideak.....	19
3.6 Corpus literarioa .....	24
4. EMAITZAK .....	25
4.1 Analizatutako obren jatorrizko hizkuntza .....	25
4.2 Protagonistak.....	25
4.3 Gurasoak .....	26
4.4 Dibortzioaren arrazoiak.....	26
4.5 Dibortzioak umearengan eragiten dituen sentimenduak .....	27
4.6 Gurasoen arteko harremana.....	28

4.7 Zaintza partekatuaren eragina umearengan .....	29
4.8 Umeak dibortzioa onartzen du? .....	30
5. ONDORIOAK.....	31
6. HOBETZEKO PROPOSAMENAK .....	34
7. BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA.....	35
7.1 Orokorra .....	35
7.2 Analizatutako obrak .....	38
8. ERANSKINAK.....	39

---

## SARRERA

---

Lau urte pasa dira eta horiekin batera bizi izandako momentu guztiak. Urte hauetan zehar hainbat kontzeptu, ideia eta ezagutzak barneratu ditut, baina esan behar dut Haur Literatura nire barnean irrika eta interes handia piztu dituen arloa izan dela, mundua eta hezkuntza ulertzeko ikuspuntuak aldatuz. Gradu Amaierako Lana horren inguruan egitea ezinbestekoa zen, ikasle eta irakasle bezala nire bizitzan beti presente egongo delako.

Haur Literatura sortu zen haurtzaroa ezaugarri eta behar espezifikoak dituen bizitzako etapa bezala kontuan hartu zenean. Haurrek haien irakurmen gaitasunari eta bizitzaren esperientziari egokitzen den literatura baten beharra zutelako.

Haur Hezkuntzako irakasleek, haur literaturari esker, umeen irakurmen gaitasuna sustatzea, haien beharrak eta interesak ezagutzea, eta irudimena garatzea lortzen dute. Literatura gelara eramateak giro magikoa eta goxoa sortzen du, non irakasleak, umeeak eta literaturak elkarri eragiten dioten.

Azken urte hauetan umeei irakurtzeko ehun liburu baino gehiago ezagutu ditut, obrak irakurri eta analizatu ditut, hauek eragindako sentimenduak eta sentsazioak paper batean idatzi ditut, eztabaida eta hizketaldi literarioetan parte-hartu dut. Eskerrak eman behar dizkiet *Irakurzaletasuna eta liburutegia* minorrean izandako irakasleei eta nire GRAL-eko zuzendariari, Txabi. Irakasle hauen lana, dedikazioa eta literatura ulertzeko eta transmititzeko moduak ezinbestekoak izan dira nik gaur egun literaturari diodan maitasuna izateko.

Haur literaturak aukeraz betetako mundu bat eskaintzen du, horregatik, funtzio sozial bat ere betetzen du. "Deserosoak" edo tabu diren gaiak normalizatzen laguntzen du, gaur egun haur literaturan gero eta gai gehiago landu egiten baitira (heriotza, bullying-a, arrazakeria, esaterako). Lan honetan dibortzioaren gaia hautatzea erabaki dut, umeari zuzenean eragiten diolako eta gure gizartean gero eta presenteago dagoelako.

Nire inguruan dibortzioa bizi izan duten lagunak ditut. Lan honi esker, haiek bizi izandako esperientziak eta emozioak ulertzeko aukera izan dut. Horrez gain, etorkizunean irakasle bezala egoera zail honen aurrean umeari nola lagundu ikasi dut.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet nire lagunei eta, batez ere, nire familiari, lau urte hauetan zehar emandako laguntzagatik eta lanbide hoberena ikasteko aukera emateagatik.

---

## MARKO TEORIKOA

---

### 2.1. HAUR LITERATURA

Haur Literatura “umeei zuzendutako liburuak” bezala ulertzen eta identifikatzen da, hala ere, kontzeptu honen inguruko hainbat eztabaida sortu dira eta beste alderdi batzuk barne hartzen ditu: corpusa, edota helduentzako literaturarekiko harremanak. Zenbait autorek honela definitu dute (Arnalek aipatua, 2017):

Bortolussik (1985) dioenez, haur literatura umeak hartzaile bezala hartzen duen literatura da.

M. Sorianok (1985) esan zuen haur literatura komunikazio historiko bat dela, hau da, leku eta garai zehatz batean kokatuta, igorle (heldua) eta hartzaile (umea) baten artekoa. Hartzaileak oraindik errealitatearen zati bat ezagutzen du eta ikasten ari da, besteak beste, helduen egitura linguistikoak, kognitiboak eta afektiboak.

Juan Cerverak (1989) dioten moduan, haur literaturaren kontzeptuak funtzio integratzaile eta selektiboa izan behar du. Honen oinarria hitza izan behar da, eta helburu artistiko eta ludiko bat bete behar du umeen interesetatik abiatuz.

Isabel Tejerinak (1994) dioenez, helduen liburu guztiak ez dira umeentzako egokiak, baina haur literatura ona baldin bada, helduei interesa pizteko eta hunkitzeko gai izango da.

J. Rubiók (1998) azaldu zuen umeei fantasiatzeko egoerak gustatzen zaizkiela baina bere eguneroko esperientziak ere bizi nahi dituzte, horregatik haur literaturak biak bat egiten ditu.

McDowellek (1973) haur literatura definitzeko ezaugarri hauek kontuan hartu zituen:

- Testu laburra izatea.
- Protagonista umea ala gaztea izatea, umea identifikatuta sentitzeko.
- Ekintza eta elkarrizketa nagusiak izan behar dira.
- Moralizatzailea, ikaskizun bat eskaini behar du.
- Egitura klasikoa: sarrera, garapena eta bukaera.
- Baikorra, amaiera zoriontsua izan behar du.
- Hizkuntza egokia, umea ulertzeko gai izan behar da baina estruktura eta lexiko berriak egon behar dira.
- Magia, fantasia eta abenturaz beteak.

Haur Literatura XIX. mendean sortu zen. Hirietan umeak eskolaratzen hasi ziren eta eskola berriak zabaldu ziren. Eskolak haur literaturaren bezero garrantzitsuena bihurtu zen, ikasteko liburuak eta beste materialak behar zituelako. Gainera, haurtzaroa helduarotik bereizten hasi zen eta horrek haur literaturari bultzada handia eman zion (Arnal, 2017).

Sormen prozesu hau modu desberdinetan garatu zen eta haur literaturak bide ezberdinak hartu zituen.

*Irabazitako haur literatura*, jatorriz umeentzako ez ziren obrek, baina umeen interesetara edo gustuetara egokitu zirenek osatzen dute. Hemen ipuin tradizionalak sartzen dira. Adibidez, Txanogorritxu nerabeentzako ipuina zen baina istorioan aldaketa batzuk egin ziren; protagonistaren adina aldatu zen, pertsonaia berri bat sartu zen (ehiztaria) eta ipuina luzatu egin zen.

*Literatura zuzenduan*, bestetik, helburua ez da literatura egitea baizik eta eduki didaktikoak zabaltzea. Valriuk (1994, Arnalek aipatua, 2017) dioenez, kasu honetan liburuei buruz hitz egin behar da eta literatura hitza eduki artistikoa duten obrentzat erreserbatu behar da.

60. hamarkadan haur literatura genero txikitat hartu zen, eskolaren menpe zegoelako, hau da, didaktismoa nagusia zen. Ahaztua eta baztertua zegoen, beraz, 70. hamarkadatik aurrera haur literaturaren inguruko eztabaidak sortu ziren.

Alde batetik, umei zuzendutako liburuak helburu moral batekin egiten ziren, hau da, liburuaren balio didaktikoak balio literarioak baino pisu handiagoa zeukan. Horren ondorioz, haur literaturaren balio literarioa defendatzen zuten autoreek azaldu zuten ezinbestekoa zela haur literaturak bere nortasun propioa izatea. Mendoza Fillolaren (1999, Arnalek aipatua, 2017) esanetan: "Haur eta gazte literaturako obrak hartzailea irakurle bezala prestatzeko balio du, obrak literaturaren ezaugarriak bere barnean dituelako".

Beste aldetik, haur literatura bi kontrako tesien arteko eztabaidan sartu zen: tesi liberala eta tesi zuzentzailea. Tesi liberalak esaten zuen ez dagoela haur eta heldu literatura, baizik eta literatura ona eta txarra, horregatik umeak nahi duena irakurri behar du. Tesi zuzentzaileak, berriz, esaten zuen haur literatura existitzen dela, eta heldua literaturaren eta umearen arteko bitartekaria izan behar dela.

## 2.2 GAUR EGUNGO HAUR LITERATURA, DIBORTZIOA ETA FAMILIA EREDU BERRIAK

Arnalek (2017) esaten duen bezala, umeak mundua eta “bere munduaren” inguruko informazioa lortu nahi du, horregatik, bizitzan tristezia edo porrota gertatzen direla jakin behar du eta eskubidea dauka. Helduek gai “deserosoak” ezkutatzeko aitzakiak biltzen dituzte, ohikoak, naturalak eta ezinbestekoak diren gaiak tabu bilakatuz.

XX. mendearen azken laurdenean, Europan gai berritzaileak aztertzen eta azaltzen dituzten liburuak sortzen hasi ziren. Liburu hauen helburu nagusiak mendebaldeko haurrari bizi den ingurunea eta barne sentimenduak azaltzea, eta eguneroko gora-beherei aurre egitea izan ziren. Dibortzioa, arrazakeria, familia eredu berriak, besteak beste, izan ziren gai berritzaileak.

Haur literatura ekoizpen eta harrera testuinguruaren arabera aldatzen joan da. Teresa Colomerrek (2006) aldaketa horiek eragiten dituzten ezaugarriak aipatu zituen:

- Zein gizarte motatan agertzen diren.
- Liburuetan nolakoa den gizarte horien erreflexu soziala.
- Gizarte horien balore nagusiak.
- Hezkuntza helburuak.
- Helburuak lortzeko irakurleei eskaintzen zaizkien tresnak.

1970. urterako garapen ekonomiko eta kultural handia lortu zen, gizartearen aldaketak ekarri zituena eta haur liburuetan eragin handia izan zuena. Testuinguru soziala aldatu zen; ipuinetako familiak hiritarrak ziren eta lanbide liberalak zituzten. Gizartearen baloreak aldatu ziren, pertsonen arteko botere harremanak zalantzan jarri zirelako eta pertsonak iritzia, borondatea eta akzio duen indibiduo bezala ikusten zirelako (Teresa Colomer, 1998, 2006).

Liburuak haur protagonista dibertigarriekin, irudimentsuekin eta ekintzaileekin bete ziren. Protagonistek munduaren errealitateari aurre egiten zioten, eta arazo psikologiko eta interpersonalak gainditzeko ikasten zuten.

Gizartearen bizimoduan sortutako aldaketek ere haur liburuetan eragin handia izan zuten; hiriko eta erdi klaseko testuingurua mantentzen da baina familia eredu desberdinak agertzen dira: guraso bakarreko familiak, adopzioak, familia homoparentalak, besteak beste. Laburbilduz, gaur egungo haur liburuetan nagusitu da mundu bat non ume hiritarrek banantzen diren gurasoak dituzte eta familia eredu berriak osatzen dituzten (Teresa Colomer, 2006).

Bukatzeko, ez dugu haur literatura eta dibortzioa batzen dituen ikerketarik aurkitu, baina esanguratsua iruditzen zaigu Rodríguezek (1997) idatzitako *Tratamiento de la familia en la literatura infantil y juvenil contemporánea* artikulua aipatzea.



## 2.3. DIBORTZIOA

### 2.3.1 Definizioa, estatistika eta motak

Dibortzioa aldaketa soziala eta psikologikoa eragiten duen prozesua da, eta familiaren harremanetan luzaroan irauten du. Dibortzioa ezkontza loturaren haustura da, bikoteak ezkontza hitzarmenarekin bukatzen du eta bakoitzari egokituko zaizkion ardurak negoziatu behar dituzte. Hitzaren jatorriari dagokionez, latineko *divortium* hitzetik dator eta banantze edo desadostasuna esan nahi du.

Azken urteetan hainbat aldaketa soziokultural gertatu dira eta horiek eragina izan dute dibortzio egoerak handitzeko eta fenomeno horren normalizazioa emateko. Emakumeak lan munduan sartzeak, bikotekide bakoitzaren independentzia ekonomikoak eta gaur egungo ezkontza eta zorientasun kontzeptuen arteko batasunak dibortzioan eragin dute (Beatriz Morgado, 2003: 49).

Dibortzioan edo banaketan, bikote-harremanaz gain, ordura arteko familia egitura ere hausten da. Familia eta bertako kideen arteko harremanak modu berri batean antolatu behar dira egoera berriari egokitzeko. Hari honetan, gure gizartean familia eredu desberdinak sortzen hasi dira, hala nola, guraso bakarreko familiak, familia homoparentalak, familia berreraikiak...

1796eko azaroaren 20an Frantzia dibortzioaren legea ezarri zen eta aurrekari bat izan zen Europako beste herrialdeetako legeak moldatzeko. Espainian 1932. urtean dibortzioaren legea onartu zen baina zazpi urte iraun zuen, 1939. urtean Francok indargabetu zuelako (Teresa Amiguet, 2017).

1981. urtera arte dibortzio aukerarik ez zegoen eta onartutako legeak banantze sistema kontserbatzailea ezartzen zuen; dibortziatzeko kausak honako hauek izan behar ziren: alkoholismoa, desleialtasuna, edota abandonua.

Dibortzio librea 2005. urtean onartu zen Espainian; legea gizartearen eta gaur egungo ezkontzen egoeretara moldatu zen. "Dibortzio espres" lege bezala ezagutzen da, eta eskaintzen dituen baldintza berriak dira: dibortzioa eskatzeko ez da beharrezkoa bikotea urte oso bat ezkontuta egotea, eta ez dira dibortzioaren kausak justifikatu behar (Europapress, 2016).

### ➤ **Estatistika**

Instituto Nacional de Estadística-k 2017an ateratako emaitzen arabera, Espainian 2017an 97.960 dibortzio egon ziren, aurreko urtean baino %1,2 gehiago. Hori dela eta, Espainia Europar Batasuneko bosgarren lekuan kokatzen da dibortzioen kopuruari dagokionez, Txekiar Errepublika, Luxenburgo, Danimarka eta Portugalen atzetik.

Euskal Estatistika Erakundearen (2019) datuek diotenez, 2017an Euskal Autonomia Erkidegoan 3.555 ezkontza desegin ziren, aurreko urtean baino %1 gutxiago. Ezkontza-haustetzat hartzen da deuseztasunen, banantzeen edo dibortzio zuzenen ondoriozko ezkontza-aldiaren bukaera oro. Dibortzio zuzen guztien artetik, 2.656 adostasunez izan ziren eta 757 auzibidez erabaki ziren.

Dibortzioei dagokienez, 3.868 dibortzio izan ziren guztira, hortik 3.840 bikote heterosexual dibortziatu ziren eta 28 homosexual. Dibortzio heterosexualei dagokienez, kopururik handiena 40 eta 49 urte bitarteko adin-tartean izan zen, gizonen nahiz emakumeen kasuan.

Bukatzeko, desegindako ezkontzen %54,5ek adingabekoak zituen. Adingabekoen zaintzari dagokionez, kasuen %55,9an amari egokitu zitzaion, %7,1ean aitari eta % 36,5ean biek partekatu zuten zaintza.

### ➤ **Dibortzio motak**

Dibortzioan haurrek eta gurasoek hainbat oztopo psikologiko eta sozialei aurre egin behar diete. Dibortzioaren lehenengo pausua ezkontzarekin bukatzea da eta hau ez da erraza. Banaketaren ondorioz sortzen diren sentimenduak denbora luze iraun ahal dira, eta zaila izaten da sentimendu hauek seme-alabei ez kutsatzea. Encarna Fernándezek eta Carmen Godoyk (2002: 43-49) dioten bezala, bikotea hainbat aspektuetan ere banatzen ari dela ulertu behar dute:

*Banantze emozionala edo dibortzio psikikoa* gertatzen da bikoteak haien harremana krisian dagoela konturatzen denean. Egoera honen aurrean konponbide bat bilatzea saiatzen da, baina prozesu honekin batera ez badator ondorio emozionalik, itxaropena galtzen da, harremanak ez ditu asetzen eta bikotekideen arteko urruntasun emozionala sortzen da. Dibortzio psikikoan, bikotekideek elkarri uko egin behar diote, eta honen zailtasun handiena gertatzen da banantze emozionala momentu eta modu berdinean bizitzen ez denean.

Batzuetan, ezkontide batek banantze emozionala besteak baino lehenago egiten du, eta, honekin batera, dibortzioaren eskaera. Beste ezkontidea, aldiz, psikologikoki ez dago prestatuta banaketarako eta lotura hausteko. Hainbat arrazoiengatik izan ahal da, hala nola, estatus ekonomiko baten galeragatik, menpekotasun emozionalagatik ala askatasunari beldurra izateagatik.

*Dibortzio legalak* bikotearen banaketa ekonomikoa eta seme-alaben zainketa zehazten ditu. Hartzen diren neurriak erreferentzia egiten diete seme-alabei, etxebizitzari, ostilamenduari, familia eta elikagai zama ordaintzeari eta pentsioei.

Deuseztasunak, banantzeak eta dibortzioak sortzen dituzten ondore berberak (Kode Zibila 90. artikulua) aipaturiko hitzarmen arau-emaileak barnean hartzen ditu:

- a) Bi gurasoen ahalpeko seme-alaben zaintza eta zaintza hori egikaritzako modua zehaztu behar dira, eta, hala denean, seme-alabekin bizi ohi den ezkontideaz bestekoak zein araubide bete behar duen seme-alabekin harremanak izan eta eurekin egoteko.
- b) Familiaren etxebizitza eta ostilamenduaren erabilera eratziki behar da.
- c) Ezkontzaren zametan eta mantenuan izan beharreko partaidetza zehaztu behar da.
- d) Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatu behar da, hori bidezkoa denean.
- e) Hala denean, ezkontide batek 97. artikuluekin bat etorri ordaindu behar duen pentsioa zehaztu behar da.

*Dibortzio sozialean*, bikotekide bakoitzak bere burua banandu bezala ikusi behar du eta gizartean duen estatus berriarekin eroso sentitu behar da. Gizarteak edo komunitateak inguru zabal bati erreferentzia egiten dio, hau da, ezkontideen lagunak, ahaide politikoak eta lankideak kontuan hartzen dira. Harreman hauek guztiak berriro definitu eta lehengoratu beharko dira. Ezkontideentzat egoera traumatikoa izaten da eta seme-alabei eragiten die.

Gaur egungo gizartean dibortzioa ulertzen eta onartzen den egoera bat da, hala ere, gaia ez da guztiz gainditu. Oraindik banaketaren erruduna bilatzen da bikotearen errealitatea ezagutu gabe, eta familia edo lagunak jarrera desegokietan oinarritzen dira. Seme-alabek bananduta dagoen giro batean hezi behar dira eta ez dute aukerarik familiekin harreman libreak izateko. Horregatik familiak eta lagunak ahal duten moduan gurasoekin harreman distantziakidea izan behar dute eta laguntza eskaini behar dute.

*Ondasunen dibortzioa* prozesu honen faserik gogorra da. Konpartituko ondasunen zatiketa da eta hauen balioa ez da bakarrik ekonomikoa, baizik eta sentimentala ere. Irabaztearen beharrak edo galtzearen beldurrak objektu material baten ondorioz sortutako borroka zehazten du, hau da, ondasunen banaketa etengabeko gatazka batean bihurtzen da. Ondasunen banaketan familiaren bitartekotza eta esparru juridikoaren profesionalen laguntza izatea beharrezkoa da.

*Menpekotasun dibortzioak* ezkontidearekin izandako dependentzia konpontzea dakar. Bikote-harremanetan menpekotasunean oinarritutako loturak sortzen dira eta hauek emozionalak eta ekonomikoak izan ahal dira. Etxearen antolakuntza, kudeaketa ekonomikoa, seme-alaben hezkuntza eta heziketa... batzuetan bakarrik guraso baten ardura izaten da.

Dibortzioarekin, eremu batzuetan guraso batek ez daki modu independente batean funtzionatzen, horregatik bizikidetzan sortutako dependentziak ahal den moduan konpondu edo murriztu egin behar dira.

### **2.3.2 Dibortzioaren eragina haurren garapenean (0-12 urte)**

Gurasoen dibortzioa edo banaketa seme-alabentzat esperientzia zaila eta mingarria izaten da. Caponnik (2003) dioenez, familia umearen sostengu psikologikoa, fisikoa eta emozionala da, baina gurasoen dibortzioarengatik osatutako familia egitura aldatzen da eta horrek umearen egunerokotasunean eta etorkizunean beldurra eta zalantzak eragiten ditu (Oriana Cifuentes eta Neva Milicic, 2012: 470).

Wallersteinek eta Blakesleek (1996) diotenez, askotan dibortzioan helduentzat ona izaten dena umeentzat, berriz, ez da onuragarria. Umeek dibortzioari buruzko sinesmen, sentimendu eta ideiak dituzte, eta haien bizitzan aldaketa eta galera esanguratsuak ezartzen dira. Horregatik, dibortzioak edo banaketak umeen garapenean eragina izaten du aldi baterako edo betirako (Oriana Cifuentes eta Neva Milicic, 2012: 470).

Dibortzioaren ondorioz, umeek emozio eta erreakzio desberdinak esperimendatzen dituzte, eta horiek adinaren arabera desberdinak izaten dira. Beraz, egokia da umearen garapen ebolutiboa ezagutzea eta kontuan hartzea, dibortzioak umeengan eragiten dituen alderdietan jokatzeko.

#### **➤ 0-3 URTEKO UMEAK**

Adin honetako umeak bere bizitzan dauden helduak ezagutzeko eta elkarri eragiteko gai dira. Bi urterekin independenteagoak egiten dira, orduan, gurasoen dibortzioak eragin handiagoa izan ahal du, eta guraso baten edo bien mendeko bihurtu ahal dira (Kroen, 2002).

Spitzek (Castellsek aipatuta, 1993) gurasoen banaketarengatik umeek bizitzen dituzten hiru fase deskribatu zituen. Lehenik, *protestaren fasea*, umeak gertatzen ari denaren ziurgabetasuna esperimendatzen du, negar eta urduritasun handi baten bitartez. Bigarrenik, *etsipenaren fasea*, umearen negarraren intentsitatea jaisten da eta aurreko fasearen ziurgabetasun maila txikiagotzen da. Hirugarrenik, *ezeztapen fasea*, umeak gertaeraren inguruko interesa galtzen du eta jarrera lasai baten bitartez aurre egiten dio.

Adin tarte honetan gurasoen presentzia ezinbestekoa da umeen garapen egokia sustatzeko. Hiru urterekin umeen izaera eta gaitasun mentala zehazten da, horregatik guraso baten falta traumatikoa izan daiteke. Hiru urte baino gutxiago duten umeek, berriz, ez dute tolerantzia eta ulermen gaitasun berdina, eta guraso baten falta heriotza bezala bizitzen dute (Castells, 1993).

### ➤ 3-5 URTEKO UMEAK

Adin honetako umeei familiaren etendura beldurra eta nahasketa eragiten die. Gurasoen banaketaren ondorioz, umeak babesik gabe sentitzen dira familia ere banandu egin delako. Beste alde batetik, beldurra eta antsietatea sortzen da; umeek pentsatzen dutelako haien oraingo eta etorkizuneko beharrak ez direla aintzat hartuko. Umeek haien gurasoekin duten harremana desagertuko dela pentsatzen dute eta, horren ondorioz, abandonuari eta gurasoen maitasun faltari beldurra izaten diote.

Wallerstein, Corbin eta Lewisek (Cantónek, Cortésekin eta Justiciak aipatuak, 2002: 51) diotenez: “los preescolares que viven la separación de los padres son el grupo más afectado a corto plazo, pero a largo plazo se adaptan mejor que los mayores, probablemente por su inmadurez en el momento de la ruptura”.

3-5 urteko umeak ahulagoak izaten dira, oraindik txikiak direlako eta zailtasunak izaten dituzte errealitatea eta fantasia bereizteko. Adin honetako umeen gaitasun kognitiboak mugatuak dira, eta dibortzioa gurasoen banaketa fisiko bezala ulertzen dute. Umeentzat zaila izaten da familiatik kanpo beste laguntza mota bat bilatzea haien estrategia kognitiboak eskasak direlako, horregatik haien etxeetan gertatzen denak emozionalki modu zuzenean eragiten die (Hetherington, 1989, Beatriz Morgado, 2003: 52).

Kasketak eta lo-arazoak izatea ohikoa izaten da, eta banaketaren antsietatea sortzen da, hau da, ezin dira guraso edo familiar batetik aldentu. Erregresioak umeen erantzun ohikoena izaten da ere, eta aurreko etapetan egiten zutena berriro egiten dute: txupetea edo biberioa eskatzea, ohean txiza egitea, besteak beste.

Askotan, umeak dibortzioaren errudunak sentitzen dira; erruduntasun sentimendu hori sortzen da gurasoek umeari dibortzioaren berri ematen ez diotenean. Horren ondorioz, dibortzioaren kausa haien jarrera desegokiagatik izan dela pentsatzen dute.

Dibortzioaren lehenengo urtea pasa eta gero, egoera hauek bizi izan dituzten ume gehienek, normaltasuna berreskuratzen dute (Castells, 1993).

### ➤ 6-8 URTEKO UMEAK

Adin honetan umeen parte-hartzea handiagoa da, bai familian bai maila sozialean ere. Beste aldetik, talde sozial desberdinetan (familia, lagunak eta eskola) betetzen duten rola ezagutzeko gai dira (Kroen, 2002).

Dibortzioa gurasoen banaketa fisiko bezala ulertzen dute baina haien arrazoinamenduan etenduraren kausak barne hartzen dituzte. “gurasoak haserretu dira edo eztabaida bat izan dute” eta ondorioak ere “gurasoen arteko liskarrak bukatu dira” (Kurdek, 1986, Beatriz Morgado, 2003: 54).

Dibortzioa edo banaketa gurasoek eta umeez pairatzen dute, horregatik askotan bere erruagatik izan dela pentsatzen dute. Normalean, 6-8 urteko haurrek errunduntasuna sentitzen dute eta egoeraren ardura hartzen dute (Castells, 1993).

Nahiz eta dibortziotik urte batzuk pasa, gurasoak elkartzearen fantasia mantentzen da; umeez oraindik bi gurasoekiko leialtasun handia izaten dute eta haiekin duten harreman emozionala estua da.

### ➤ 9-12 URTEKO UMEAK

Adin honetako haurren heldutasun maila handitzen da eta batzuek, egoera honen aurrean, haien autonomia eta heldutasun soziala hobetzen dute. Hala ere, sentimendu eta erreakzio batzuk mantentzen dira, adibidez, haserrea, edota antsietatea.

Dibortzioa modu konplexu eta psikologiko batean ulertzen dute, eta pentsatzen dute helduen erabaki bat dela. Ez dira banaketaren errudunak sentitzen, baizik eta gurasoei errua botatzen dieten. Gainera, guraso bakoitzaren ikuspegitik dibortzioa ulertzeko eta analizatzeko gai dira (Beatriz Morgado, 2003: 54).

Gurasoak elkartzearen fantasia ez da mantentzen, eta dibortzioaren zenbait zergatiaz eta ondorioz ohartzen dira. 0-8 urteko umeez konparatuta, izaten dituzten erreakzioak (antsietatea, beldurra, erregresioa...) gutxiago dira.

Castellsek (1993) dioenez, adierazgarria izaten dira gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan sortzen diren aldaketa dramatikoak, eta horrek eragina izaten du guraso batekin harreman estua eratzeko.

Wallersteinek (1983, Fernández eta Godoy, 2002: 57) umeez adinaren arabera dibortzioari nola erantzuten dioten analizatu zuen, eta deskribapen kliniko bat egin zuen beste sailkapen bat sortuz:

- *Eskolaurreko* umeez ondoeza handia erakusten dute. Banaketaren ondorioz antsietatea sentitzen dute, abandonuari beldurra izaten diote, erregresio maila handia eta dibortzioa ulertzeko gaitasun txikiago dute, horregatik banaketaren errudunak sentitzen dira.
- *Eskola-adineko* umeez depresioa aurkezten dute. Guraso baten faltagatik larritzen dira. Dibortzioa errefusa bezala ikusten dute eta ordezkaturata izateari beldurra diote.
- *Aurre-adoleszentzian* haserrearen bitartez erantzuten dute eta guraso bati errua botatzen diote. Gainera, sintoma somatikoak garatu ditzakete, hala nola, antsietatea, depresioa... (*Ikusi 1. eranskina*).

### **2.3.3 Hurrek dibortzioaren ondorioz dituzten erreakzioak**

Nahiz gurasoen dibortzioaren edo banaketaren lehenengo urtean umearen bizitzan aldaketa handiak ematen diren, dena berrantolatzen da, bere errutinak aldatzen dira eta denboraldi hau gurasoentzat ere oso kritikoa izaten da.

Gurasoen banaketa edo dibortzioa umeen garapenean kontuan hartu behar den baldintza bihurtu da, batez ere, bikotearen banaketaren lehenengo urtean. (García Cervera, Bobes, Bousoño eta Lemos, 1986, Fernándezek eta Godoyk aipatuak, 2002: 60).

Dibortzioak edo banaketak sortzen dituen arazo gehienak emozionalak izaten dira, eta honekin batera eskola arazoak, arazo sozialak eta fisikoak datoz. Dena dela, urteak pasa eta gero murriztu egiten dira (Guidubaldi, Cleminshaw, Perry, Nastasi eta Lightel, 1986, Fernándezek eta Godoyk aipatuak, 2002: 60).

Hauek izaten dira hurrek dibortzioaren ondorioz dituzten erreakzio ohikoenak:

- **Tristura:** Gurasoen dibortzioarengatik eta familiaren banaketarengatik sortzen den erantzun emozional nagusia da. Familia aldatu da eta ez da berriro berdina izango, umeak onartu behar duen errealitatea da. Umearen egunerokotasunean guraso baten falta eta familiaren nostalgia erreakzio gogorrak sortzen ditu. Umearen bizitzan aita eta ama ordezkaezinak dira eta banaketak umeak guraso batekin eguneroko harremana galtzea dakar. Banaketak ere beste galera batzuk ditu, hala nola, eskolako edo auzoko lagunak. Garrantzitsua da ahal den neurrian umeak bere bizitzan aldaketa eta galera gutxi izatea, horrek eragina izango baitu bere tristura mailan. Umeak tristura modu desberdinetan erakutsi dezake. Bere garapen ebolutiboa ere kontuan hartu behar da, horren ondorioz, isilkor egon baitaiteke, urrun, bere baitan murgilduta... Tristura adierazteko beste modu batzuk haserrea, jarrera oldarkorrek edo oposizio-jarrerak izaten dira.
  
- **Beldurra:** Umeen beldurrak adinaren arabekoak izango dira, hau da, bere garapen ebolutiboren arabera. 0-6 urteko umeek gurasoak bakarrik uztearen, maitatuta ez sentitzearen eta etxea edo janaririk gabe geratzearen beldurra sentitzen dute. Umeak lehen bi guraso zituen eta orain bakarrik bat, orduan, pertsona hori galtzearen beldurra sentitzen du ere. Beldurra adierazteko modua etengabeko negarraren bidez izan ahal da, atxikimendu jarreraren handiagotzearen bidez, guraso batekin egonezinenaren edo errefusaren bidez. Sarritan umeak pentsatu ahal du gurasoek elkar maite ez dutenez, bera ere ez dutela maitatuko, hori kezka eta segurtasun-gabezia sortzen duen arazoa delarik.

- **Erantzukizun handia:** Guraso baten urruntasunak familia baten kide guztien segurtasuna arriskuan jartzen du; ume batzuek bere etxeaz eta anai-arrebaz arduratzearen erantzukizuna hartzen dute. Gurasoek jarrera heldua hartzen badute, eta bere seme-alabari transmititzen badiote hori helduen erantzukizuna dela, erreakzio hau gutxitzen joango da.
- **Haserrea:** Gurasoen dibortzioaren edo banaketaren ondorioz, umeak errealitate berri bati aurre egin behar dio eta egoera horren aurrean berak ezin du ezer egin, beraz, emozio berriak eta desatseginak sentitzen ditu. Umeek haserrea modu desberdinetan adierazten dute, hala nola, guraso eta irakaslearekin jarrera desegokiak izaten, beste umeekin borrokatzen. Beste ume batzuek, ordea, ez dute haserrea kanporatzen. Umeak haserre sentimendua modu onargarrian adieraztea funtsezkoa da.
- **Erruduntasuna:** Umeak sinesten du bera munduaren erdigunea dela, horregatik bere inguruan gertatzen denaren kausa dela pentsatzen du. Ume asko bere gurasoen dibortzioaren edo banaketaren errudun sentitzen dira, horregatik saiatzen dira hauek adiskidetzen. 0-6 urteko umeen garapen ebolutiboan kontzientzia baten hasiera ematen da (super-nia psikologikoki esanda), eta moralitatearen agerpena; “ondo” edo “gaizki” dagoenaren sentimendua. Horrek erruduntasunaren zama dakar.
- **Bakardadea:** Kide batek familia baten partaidea izaten uzten duenean, huts handi bat sortzen da. Guraso batek etxebizitza uzten duenean, umea bakarrik sentitzen da harremana edozein izanda ere. Dibortzioaren ondorioz, familiaren dinamika aldatuko da eta bakartasun sentimendua eragingo du. Askotan, umeak sentitzen duen bakardadea gurasoen planifikazio on batekin konpontzen da.
- **Erregresioa:** Erreakzio mota hau ohikoena izaten da. Umeak dibortzioaren ondorioz bizi duen egoera estresagarria saihestea, eta segurtasuna eta lasaitasuna aurkitzeko aukera ematen dio. Jarrera erregresiboak modu desberdinetan adierazi ditzake, hala nola, hatz lodia miazkatzen, ohean txiza egiten, kasketak ala aurreko etapetan erabilitako objektu batekin atxikimendu harremana berriro eratzea (panpina, jostailua, izara...). Erregresioaren



aurrean, funtsezkoa da gurasoek umea ez zigortzea, momentu hauetan umeak bere gurasoen segurtasuna eta laguntza behar duelako.

- **Eskola-arazoak:** Gurasoen dibortzioak eragin handia izango du eskola errendimenduan eta egokitzapenean. Sarritan, banaketa prozesuan arreta eta kontzentrazio mailak jaisten dira eta umea bere baitan murgilduta egoten da. Gurasoen laguntza eskola zereginetan ezinbestekoa da, horregatik garrantzitsua da aitaren eta amaren etengabeko presentzia.
  
- **Gurasoak elkartzearen fantasia:** Gurasoen artean komunikazio falta dagoenean umea oso gaizki sentitzen da, eta modu desberdinetan saiitzen da gurasoen arteko komunikazioa eta kontaktua sortzen. Batzuetan umeak gatazkak sortzen ditu eta gurasoek liskarrak izaten dituzte, umeak pentsatzen duelako gurasoak borrokatzean elkartzeko aukera bat dagoela. Beste ume batzuek, berriz, gurasoen arteko kooperazioa edo harremana gaizki ulertzen dute eta berriro elkarrekin egongo direla pentsatzen dute. Egoera hauen aurrean, gurasoek umeari azaldu behar diote lagunak direla baina ez direla berriro elkarrekin egongo.

### **2.3.4 Dibortziatu ondorengo gurasoen arteko harremana**

Dibortzioa edo banaketa eta gero, gurasoen arteko harremanak desberdinak izaten dira. Cáceresek, Manheyk eta Raiesek (2004) dioten bezala, egoera honen aurrean bikoteak bi modutan erantzun ahal du: alde batetik, familiak bere funtzioak betetzen ditu haien seme-alaben segurtasuna sustatzeko, eta, beste aldetik, bikotearen arazoak mantentzen dira zaintza funtzioak hondatzen dituzten bitartean (Cifuentes eta Milicic, 2012: 470).

Ahronsek eta Rodgersek (1988) eta Bermanek (1981) gurasoen arteko harremanak maiztasun eta interakzio moten arabera deskribatu eta sailkatu dituzte (Fernándezek eta Godoyk aipatua, 2002: 52-54):

*Guraso kideak.* Ezkontide ohiak lagunak dira eta seme-alabarik gabe elkarrekin ekintzak egiten dituzte. Heziketaren eta zaintzaren ardura partekatzen dute, haien artean asko hitz egiten dute eta elkarrekin erabakiak hartzen dituzte. Kasu honetan, seme-alabek harreman ona izaten dute bi gurasoekin. Gurasoek haien seme-alaben egunerokotasunean parte-hartzen dute eta elkarrekin lan egiten dute, horregatik haien arteko harremana aldatzen da eta lagun bihurtzen dira.

*Lagunak diren gurasoek* hezitzeko irizpide desberdinak dituzte baina elkar errespetatzen dute. Komunikazioren eta bisiten inguruko akordio batera ailegatu dira eta ez diote elkarri oztopatzen. Hala ere, ez dira ikusten eta bakarrik seme-alabei buruz hitz egiten dute. Umeek gurasoak banan-banan ikusten dituzte.

*Guraso lehiakorrak* seme-alaben zaintzaz arduratzen dira baina ez dira ados jartzen, elkar kritikatzeko eta bestearen erabakiak zalantzan jartzen dituzte. Guraso batzuek elkar saihesten dute eta noizbehinka liskarrak izaten dituzte; beste batzuek, berriz, seme-alaben aurrean asko eztabaidatzen dute. Bikotearen artean akusazio-harremana eratzen da, seme-alabak larrituta sentitzen dira eta ezin dute guraso bakoitzarekin harreman libre bat izan.

*Guraso etsaiek* ezin dute elkar ikusi, haien artean komunikazio falta dago, ez dute elkar errespetatzen eta harreman txarra dute. Horren ondorioz, guraso bat desagertzen da eta ez ditu seme-alabak zaintzen. Harreman mota honetan seme-alabekin geratzen den gurasoak bere zereginak betetzen baditu, umeek garapen arrunta izango dute.

### **2.3.5 Zaintza partekatua**

2015eko ekainaren 30ean, Eusko Legebiltzarrak Zaintza Partekatuaren Legea onartu zuen, eta ondorioz, zaintza partekatua izan da arau nagusia dibortzio kasuetan. Umearen zaintzaren ardura bi gurasoek %50ean partekatzen dute, inork kontrarik eskatzen ez duen bitartean.

Pilar Legarra (2015) psikologoak esaten du ez dagoela eredu bat bestea baino hobea denik, baizik eta familia bakoitzaren egoeraren eta ezaugarrien arabera erabaki behar dela. Bere ustez, aukerarik egokiena zaintza bi gurasoek partekatzea edo zaintza osoa gurasoetako baten esku uztea da.

Familiak berak erabakitzea zein zaintza-eredu nahi duen seme-alabentzat egokiena da, epaitegietako auzi-prozesuetan gurasoen arteko harremana trakestu egin daitekeelako. “Bat irabazle bezala ateratzen da, eta bestea galtzaile sentitzen da. Horrek emozionalki sortzen duen haustura gainditzea oso zaila da” (Legarra, 2015).

Zaintza modu desberdinetan partekatu daiteke: umea astebete gurasoetako baten etxean egon daiteke, eta beste astebete bat beste gurasoaren etxean; edo, haurra etxebizitzan geratzen da, eta gurasoak dira aste batean bai bestean elkarbizitzera etortzen direnak.

Legarrak (2015) dioen moduan: “zaintza partekatuak bi gurasoekin harreman estua mantentzeko aukera ematen du; zaintza monoparentalean, aldiz, egunerakotasun hori ia erabat galtzen du bietako batek. Guraso bat aisialdirako da, eta beste gurasoak, aldiz, izugarrizko zama darama”.

Nahiz eta zaintza eskuratu duen gurasoak bere burua irabazle bezala ikustea, bere egoera zaila izaten da, hainbat erabaki hartu behar dituelako eta bakarrik sentitu daitekeelako. Legarraren (2015) ustez, ezinbestekoa da gurasoen arteko komunikazioa eta antolakuntza.

---

## METODOA

---

### 3.1 Ikerketaren helburu nagusia

Gradu Amaierako Lanaren gaia *Dibortzioaren trataera gaur egungo haur literaturan (2002-2018)* da. Lana Haur Hezkuntzarako bideratuta dagoenez, 0-6 urteko haurrei zuzenduta dauden liburuak aukeratu dira. Aukeratutako obren genero literarioari dagokionez, gehienak ipuin ilustratuak dira eta hauek, albuma bezala, baliabide onak dira adin hauek haurrentzat. Hizkuntzari dagokionez, Euskal Herriko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direla aintzat hartuta, bi hizkuntzetan argitaratutako obrak aukeratu ditugu. Gainera, umeei bi hizkuntza hauekin kontaktua dutenez, horrek informazio gehiago eskuratzeko eta ikerketa aberasteko aukera eman digu.

Haur literaturan deserosotzat hartzen diren gaiak gero eta presentzia handiagoa dute (heriotza, gerra, arrazakeria...). Dibortzioa eta horren ondorioak gizarteak aurre egin behar dion beste erronka bat da, eta haur literaturak ere honen parte izan nahi du. Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia dibortzioaren trataera gaur egungo haur literaturan (2002-2018) aztertzea da.

### 3.2 Helburuak

Ikerketaren lehenengo helburua hurrengo atalean aipatuko diren hipotesiei erantzuna ematea izango da. Horretarako, 0-6 urteko haurrei zuzenduta eta dibortzioa lantzen duten obrak aztertu dira. Bestalde, honako helburuak planteatu dira:

- Haur Hezkuntzako umeei lan egiten edo harremanak dituzten profesionalei eta ez profesionalei baliabide bat eskaintzea dibortzioaren tratamenduaren inguruan.
- Haur Literaturan dibortzioa gai deserosotzat hartuta, honi aurre egiteko eta gaiaren normalizazioa lortzeko aurrerapauso bat izan ahal dela uste dugu.
- Baliabide literario erabilgarri bat eskaintzea dibortzioak gaur egungo haur literaturan duen trataeraren inguruan. Gure lana baliagarria izatea gustatuko litzaiguke interesa duten pertsona ororentzat, haurrekin edota literaturarekin erlazioa duten pertsonentzat eta zentroentzat (liburutegiak, eskolak...).

### 3.3 Hipotesiak eta galderak. Ikerketarako proposamenak

1. *Hipotesia:* Haur literaturan dibortzioa lantzen duten obren argitaratze datak erreferentzia bezala hartzen baditugu, presentera hurbiltzen garen neurrian lan kopurua handiagotuko dela uste dugu, gure gizartean egoera hau gero eta arruntagoa delako. Espainian dibortzioaren legea 1981. urtean onartu zen, Europako beste herrialdeekin konparatuta beranduago. Gure ustez, horrek eragina izango du azkenengo urteetan dibortzioari buruzko obren kopurua handitzean eta dibortzioan tradizio luzeago duten Europako beste herrialdeetako (Frantzia, Alemania eta Holanda) obren itzulpenen presentzia nabarmenean.
2. *Hipotesia:* Kontuan hartzen bada obra hauek 0-6 urteko umei zuzenduta daudela, dibortzioa bizitzen duen pertsona, hau da, egoera honi aurre egiten dion protagonista ume bat izango dela uste dugu. Honen bidez, irakurlearen eta protagonistaren arteko identifikazioa eta konplizitatea bilatuko da. Gainera, animalien presentzia aztertuko dugu, hauek protagonista edo bitartekari izaten direlako obrak gai delikatu bat jorratzen duenean.
3. *Hipotesia:* Umeak dibortzioaren ondorioz erreakzio desberdinak izaten ditu: tristura, beldurra, erantzukizun handia, haserrea, erruduntasuna, bakardadea, gurasoak elkartzearen fantasia... Umeak dibortzioaren ondorioz dituen erreakzioak, eta adinaren arabera zein eragina duen (0-12 urteko umeen garapena) kontuan hartuz, obretan horiek islatuko direla, eta emozio eta sentimendu batzuk errepikatuko direla uste dugu.
4. *Hipotesia:* Dibortziatu eta gero gurasoen arteko harremanak desberdinak izaten dira, Ahronsek eta Rodgersek (1988) eta Bermanek (1981) harreman mota desberdinen sailkapena egin zuten (guraso kideak, lagunak diren gurasoak, guraso lehiakorak eta guraso etsaiak). Uste dugu umeak prozesu honetan izango dituen erreakzioen arrazoi nagusia ez dela gurasoen dibortzioa izango, baizik eta hauen arteko harreman txarragatik. Gainera, gure ustez obrek ez dute informazio asko eskainiko dibortzioaren arrazoien inguruan, eta umearen bizipenetan zentratuko dira.
5. *Hipotesia:* Gurasoak umeen erreferentzia afektibo nagusiak dira. Obra desberdinetan hauek bete izandako papera analizatu ondoren, uste dugu bitartekari gisa arituko direla umearen eta dibortzioa ulertzearen artean, eta saiaturiko direla arazoa

konpontzen umearen ongizaterako. Gainera, uste dugu obretan agertuko diren guraso ereduak bikote heterosexualak (gizona eta emakumea) eta familia nuklearrak (ama, aita eta seme-alabak) izango direla gizartean nagusi direlako.

6. *Hipotesia*: Dibortzioaren ondorioz, gurasoek seme-alaben zaintza partekatu behar izaten dute. Uste dugu obretan umeen ikuspuntutik ezagutuko dugula nola bizitzen duten egoera bitxi hau, zer sentitzen duten aita edo amarengandik aldentzen direnean, eta guraso bakoitzarekin nolako bizimodua duten. Obretan zaintza partekatuaren errealitatea, zailtasunak, alderdi positiboak eta negatiboak islatuko dira.
7. *Hipotesia*: Nahiz eta dibortzioa konplexua, deserosoa eta emozioz betetako egoera den, bukaeran haurren partetik erantzun positibo bat egongo dela uste dugu. Teresa Colomerrek (2005) dioenez, ipuinetan hiru amaiera mota berri sortu dira; amaiera mota bat da pertsonaien partetik arazoa onartzea eta aurre egitea; umeak ulertzen dute arazoak bizitzaren parte direla eta barneko arazoak konpontzeko gai dira. Gure ustez, umeak gurasoak ez direla elkarrekin egongo onartuko du, eta bere egoera berriari aurre egingo dio modu positibo batean.

### **3.4 Informazio bilketarako eta horren analisirako prozedura**

Dibortzioak gaur egungo haur literaturan duen trataera aztertzeko, hasierako ikerketa bat egin da corpus literarioa osatzeko; horretarako, informazio iturri desberdinak erabili dira. Lehenik, Vitoria-Gasteizko Udalak dibortzioari buruz argitaratutako gida bat (*Guía para padres y madres en situación de separación y/o divorcio - Cómo actuar con los hijos e hijas, 2001*) jarraitu dugu. Gida honetan gurasoentzat bideratutako aholkuak agertzen dira, eta, horrez gain, bibliografia interesgarri bat non haurrentzako zein helduentzako liburuak proposatzen diren.

Bigarrenik, Ignacio Aldecoa liburutegian familia eredu berriei buruzko irakurketa gida bat lortu dugu (*¡En familia! Y otros parientes. Irakurketa gida 2014*), eta horren obra batzuk hautatu ditugu. Gainera, Ignacio Aldecoa liburutegiaren katalogoa erabili dugu gainerako obrak lortzeko.

Hirugarrenik, Tarttalo eta Elkar euskal argitaletxeen web-orriak erabili ditugu gure corpora osatzen duten obra batzuen informazioa eta datu garrantzitsuak jasotzeko, hala nola, egileak, irudigilea, edota argitalpen datak.

Corpus literarioaren bilaketa eta aukeraketa egiteko irizpide batzuk jarraitu ditugu: gaia dibortzioa izatea, 0-6 urteko haurrei zuzenduta egotea, ipuin ilustratua izatea, 2000 urtetik aurrera argitaratua izatea eta euskaraz eta gaztelaniaz egotea. Hori kontuan hartuz, 12 obrak osatutako corpus literarioa sortu dugu.

Ondoren, corpus literarioa aztertzeko hipotesien zehaztapena egin da. Obren analisiak egiteko, Arnalen (2011) tesiaren eredua jarraituz, informazio fitxa desberdinak diseinatu dira non aztertuko diren hainbat alderdiak barne hartzen dituzten. Liburu guztien irakurketa sakona egin dugu, informazio fitxak betez.

Bukatzeko, informazio fitxetan agertzen diren datuak taldekatu, kuantifikatu eta erlazionatu dira modu estatistikoan aditzera emateko. Hau guztia interpretaziora heltzeko, eta emaitzak hipotesiekin eta marko teorikoarekin alderatzeko.

### **3.5 Baliabideak**

Obren analisiak egiteko sei fitxa diseinatu ditugu eta bakoitzak planteatutako hipotesi batekin erlazionatuta dago. Honen bidez, obren analisisetatik lortutako informazio aztertu eta ondorioak atera dira.

Lehenengoa obraren fitxa bibliografikoa da, hau da, obraren titulua, nori idatzi eta ilustratu duen, zein den argitaletxea, itzulpena den ala ez, zein urtetan, non eta zein hizkuntzara argitaratu zen, eta, itzulpena izatekotan, zein urtetan itzuli zen. Bukatzeko, obra bakoitzaren laburpen txiki bat jarri dugu irakurleari obra aurkezteko.

Bigarren fitxan protagonista aztertuko da; haurra, nerabea edo animalia den. Protagonista haurra edo nerabea bada, kontuan hartuko da neska edo mutila den. Horrez gain, animalia gizarteratuak agertzen diren aztertuko da.

Hirugarren fitxan gurasoak nolakoak diren aztertuko da; horretarako zein bikote motatakoa (bikote heterosexuala edo homosexuala) eta zein etniakoak diren (etnia berdinen artean edo etnia desberdinen artean) aztertuko da. Gainera, dibortzioaren arrazoiak azaltzen diren ala ez ikusiko da.

Laugarren fitxa dibortzioak eragiten dituen sentimenduetan oinarritzen da. Alde batetik, umeak dibortzioaren ondorioz zer sentitzen duen ezagutuko dugu (tristura, beldurra, erantzukizun handia, haserrea, erruduntasuna...). Beste aldetik, nolakoa den gurasoen arteko harremana: ona edo txarra. Harremana txarra bada, zergatik den txarra, eta haien arteko harremana konpontzen den ala ez aztertuko dugu.

Bostgarren fitxan obretan zaintza partekatuaren islapena eta nola eragiten dion umeari aztertzen da. Bukatzeko, seigarren fitxan umeak dibortziora onartzen duen ala ez analizatzen da.

<b>IDAZLEA:</b>			
<b>IRUDIGILEA:</b>			
<b>IZENBURUA:</b>			
<b>ARGITALETXEA:</b>			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez		
<b>Laburpena:</b>			

<b>NOR DA PROTAGONISTA?</b>						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	
<b>OHARRAK:</b>						



NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
	E+E	G+G		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra							
	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna			Amorrua	Besteak	
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?							
	Bai					Ez		

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
OHARRAK:					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
OHARRAK:	

### 3.6 Corpus literarioa

Corpus literarioren bilaketa eta aukeraketa aurrera eramateko, honako irizpide zehatzak kontuan hartu ditugu:

- *Gaia*: Dibortzioa lantzen duen obra literarioa izatea.
- *Adina*: Haur Literaturako obrak, 0-6 urteko haurrei zuzenduta daudenak.
- *Hizkuntza*: Euskaraz eta Gaztelaniaz argitaratu diren obrak.
- *Kronologia*: 2000 urtetik aurrera argitaratutako obrak.
- *Kanona*: Corpusa aukeratzeko ez da kalitatezko irizpiderik erabili, baizik eta ondorioak eta emaitzak errealagoak izateko intentzioarekin aukeratu den.

1. Amavisca, L. eta Betania, Z. (2017). *El espejo en la casa de mamá / El espejo en la casa de papá*. Madrid: NubeOcho
2. Balzaretta, C. eta Decis, A. (2010). *Príncipe de dos palacios*. Madrid: SM, D.L.
3. Carbonell, P. eta Rosique, S. (2017). *Valentina tiene dos casas*. Madrid: Jaguar
4. Klamburg, L. (2011). *Estoy triste mis padres se separan*. Barcelona: Bellaterra
5. Koppens, J. eta Nijs, A. (2016). *Mila bi etxetan bizi da*. Donostia: Tarttalo
6. Lamblin, C., Faller, R. eta Roederer, C. (2002). *Los padres de Sara se separan*. Zaragoza: Edelvives
7. Licitra, J. eta Rosique, S. (2015). *Con ojos de niño*. Madrid: Cuentos de Luz
8. Pétigny, A. eta Delvaux, N. (2007). *Kamile: aita eta ama ez daude haserre*. Donostia: Tarttalo
9. Rico, S. (2013). *¡Ya basta!*. Madrid: Ediciones IDAMPA
10. Sauermann, M. eta Heidschötter, U. (2013). *El niño y la bestia*. Barcelona: Picarona
11. Smet, M. eta Talsma, N. (2008). *Vivo en dos casas*. Barcelona: Malsinet
12. Vidal, S. eta Thomas, L. (2017). *Hariaren gainean*. Donostia: Tarttalo


---

## EMAITZAK

---



### 4.1 ANALIZATUTAKO OBREN JATORRIZKO HIZKUNTZA

Hasteko, lehenengo grafikoak erakusten digu analizatutako 12 obretatik %50a (N=6) jatorriz gaztelaniaz argitaratuko obrak direla, eta beste %50a (N=6), aldiz, itzulpenak direla (frantsesa, alemana eta nederlandera).



### 4.2 PROTAGONISTAK


Bigarren grafikoak obren protagonistei erreferentzia egiten die. Protagonismoa lau mota ezberdinetan banatuta dago: haurra, nerabea, animalia eta animalia gizarteratua. Grafikoak dioten bezala, obretako protagonisten %100 (N=13) haurrak dira. Gainera, nesken eta mutilen arteko protagonismoa parekatua dago: %46a (N=6) neskek dira eta %54a (N=54) mutilak.



### 4.3 GURASOAK


Hirugarren grafikoari dagokionez, obretan agertzen diren gurasoak nolakoak diren aztertu da, horretarako bi ezaugarri kontuan hartu dira: bikote mota eta etnia.

12 bikoteetatik %100a (N=12) heterosexualak dira; beraz, beste familia motak, hala nola, familia homoparentalak eta familia berreraikiak ez dira agertzen. Gurasoen etnia ere kontuan hartu da eta %100a (N=12) etnia berekoen arteko bikoteek osatu dute.



### 4.4 DIBORTZIOAREN ARRAZIOIAK





Laugarren grafikoan ikusten den bezala, 12 obretatik %33an (N=4) dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira (gurasoak liskarrak zituztela, bakoitzak bere bidea hartu duela eta elkarrekin zoriontsuak ez direla), baina %67an (N=8) ez da arrazoiaren inguruko informaziorik aipatzen.



#### 4.5 DIBORTZIOAK UMEARENGAN ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK


Bostgarren grafikoan dibortzioak umearengan eragiten dituen sentimenduak analizatu dira, hala nola, tristura, beldurra, bakardadea, erruduntasuna eta haserrea.

Grafikoek erakusten duten bezala, obretan tristura, %77arekin (N=10) nagusitzen den sentimendua da. Ondoren, beldurra eta bakardadea, %54arekin (N=7), datoz. Bukatzeko, kasu batzuetan, %31 (N=4), umeek erruduntasuna sentitzen dute, eta %23an (N=3) haserrea.



#### 4.6 GURASOEN ARTEKO HARREMANA

Seigarren grafikoak gurasoen arteko harremanari buruzko alderdi batzuei erreferentzia egiten die. Lehenik, gurasoen arteko harremana nolakoa den aztertu da, eta emaitzen arabera, 12 bikoteetatik %25ak (N=3) harreman ona du. Gainerakoan, %75a (N=9), haien artean harreman txarra dute.



Bigarrenik, 9 bikoteen arteko harreman txarraren kausak edo arrazoiak aztertu dira. Gurasoen arteko arazo nagusiak, liskarrak, amorrua, komunikazio falta eta desadostasuna dira. Grafiko hauetan ikusi dezakegu liskarrak eta amorrua arrazoi nagusiak direla %78ko (N=7) kasuetan. Komunikazio falta eta desadostasuna, berriz, %33an (N=3) gertatzen dira.






Hirugarrenik, obretan gurasoen arteko harremanak konpontzen diren ala ez analizatu da. Gurasoen %67ak (N=6) haien arteko harremana konpontzea lortzen du, eta %33ak (N=3), berriz, harreman txarra izaten jarraitzen du.




#### 4.7 ZAINITZA PARTEKATUAREN ERAGINA UMEARENGAN


Zazpigarren grafikoari dagokionez, obra guztietan zaintza partekatua islatzen da. Egoera honek eragina izaten du umeengan eta, horren ondorioz, %77an (N=10) bi etxe dituela pentsatzen du. Ondoren, %69an (N=9) bizitzeko bi modu desberdin dituela sentitzen du, eta gainerako %54an (N=7) triste sentitzen da ama eta aita elkarrengandik aldentzean.



### Bizitzeko bi modu desberdin




### Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean



## 4.8 UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?

Zortzigarren grafikoari dagokionez, umeak gurasoen dibortzioa onartzen duen ala ez aztertu da. Analizatutako obren 13 protagonistatik %92ak (N=12) gurasoen dibortzioa onartzen du. Bakarrik umeen %8ak (N=1) ez du narrazioaren bukaeran dibortzioa onartzen.

### Umeak dibortzioa onartzen du?



---

## ONDORIOAK

---

Ikerketaren aurreko atalean jasotako emaitzak kontuan hartuz, eta proposatutako hipotesiekin egiaztatu ondoren, hurrengo ondorioak garatu ditugu:

Espainiako eta Euskal Herriko haur literaturan ez dago dibortzioari buruzko obrak **ekoizteko** tradizio handirik. Horren ondorioz, jatorriz gaztelaniaz argitaratutako obren eta itzulpenen kopurua (%50) parekoa da. Emaitzak ikusita, agerikoa da azkenengo urteetan Espainiako produkzioan dibortzioan tradizio luzeago duten Europako beste herrialdeetako (Frantzia, Alemania eta Holanda) obren itzulpenen presentzia nabarmenena izatea.

Haur literaturan dibortzioa lantzen duten obren **argitaratze datak** erreferentzia bezala hartzen baditugu, presentera hurbiltzen garen neurrian lan kopurua handitzen da. Datu adierazgarri honi esker, adierazi dezakegu gaur egun haur literaturan gero eta aukera gehiago dagoela edozein gai tratatzeko.

Planteatutako hipotesietan **protagonistari** buruz aurreratu genuen bezala, analizatutako obra guztietako protagonistak umeak direla (%100) ondorioztatu dezakegu. Teresa Colomerrek (2001) dioen bezala, gai delikatu edo psikologikoetan irakurlearen eta protagonistaren arteko identifikazioa bilatzen da, istorioa esanguratsua eta naturala izateko.

**Protagonistaren sexuari** dagokionez, nesken (%46) eta mutilen (%54) arteko protagonismoa parekatua dago. Emaitza hau oso interesgarria iruditu zaigu, bi sexuen arteko berdintasuna erakusten duelako. Gainera, mutilen portzentajearen arreta ipintzen badugu pixka bat altuagoa da. Horrek esan nahi du gai psikologikoetan mutilen presentzia gero eta nabarmenagoa dela, estereotipoetatik aldentuz, eta mutilei sentimenduak eta emozioak adierazteko aukera emanez.

Obretan agertzen diren **gurasoak** aztertu ondoren, bikote heterosexualak (%100) eta etnia berekoen arteko bikoteak (%100) ikerketan nagusi izan dira. Beraz, beste familia motak, hala nola, familia homosexualak, familia berreraikiak eta etnia ezberdinen artekoak ez dira agertzen. Horren ondorioz, obretan erakusten den familia eredu bakarra tradizionala edo nuklearra da (aita, ama eta seme-alabak) gure gizartean nagusiak direlako. Hala ere, ez du gaur egungo errealitatearekin bat egiten.

Emaitzek dioten moduan, obretan **dibortzioaren arrazoiak** oso gutxitan azaltzen dira (%33) eta ez dira modu esplizitu batean azaltzen. Obretan ematen diren arrazoiak hauek dira: gurasoek liskarrak zituztela, bakoitzak bere bidea hartu duela eta elkarrekin ez direla zoriontsuak. Hipotesietan aipatu genuen bezala, obrek dibortzioaren arrazoiaren inguruko informazio asko ez eskaintzea (%67) normala da, umearen bizipenetan zentratzen direlako gurasoen arteko arazo pertsonalak alde batera utziz.

Fernándezek eta Godoyk (2002) diotenez, dibortzioaren ondorioz umeeek **erreakzio edo sentimendu** desberdinak izaten dituzte. Sentimendu horiek horrela agertzen dira analisirako corpusean: tristura (%77) da umeeek gehien sentitzen dutena. Bigarrenik, beldurra eta bakardadea (%54) sentitzen dute. Hirugarrenik, erruduntasuna (%31) eta haserrea (%23).

Analizatutako obrak 0-6 urteko umeei zuzenduta daude, Wallersteinek (1983) esan bezala, egoera hauetan kaltetuenak, dibortzioa banaketa fisiko bezala ulertzen dutelako. Etxean gertatzen dena emozionalki modu zuzenean eragiten die, horregatik, ondoeza handia sentitzen dute, abandonuari beldurra diote, banaketaren errudunak sentitzen dira eta kasketak hartzen dituzte. Obretan islatutako sentimenduek adin honetako umeen garapen ebolutiboarekin bat egiten dute, eta horrek aukera eman digu umeei dibortzioa nola bizitzen duten ezagutzeko.

**Gurasoen arteko harremanari** dagokionez, obretan gehienek harreman txarra (%75) dute eta arrazoi nagusiak liskarrak eta amorrua (%78) dira. Hipotesietan planteatu genuen bezala, gurasoen arteko harreman txarrak umeei dibortzioa nola bizitzen duen baldintzatzen du. Ahronsek eta Rodgersek (1988) eta Bermanek (1981) diotenez, guraso lehiakorak eta etsaiak dituzten seme-alabek ezin dute gurasoekin harreman libre bat izan, eta horrek zaintza funtzioak hondatzen ditu. Obretan gurasoen arteko harremana konpontzen den ala ez aztertu dugu, eta emaitzak positiboak izan dira guraso askok (%67) haien arteko harremana konpontzea lortzen dutelako. Gurasoentzat dibortzioa ere zaila izaten da, horregatik, esfortzu handia egin behar dute egoera honi aurre egiteko eta seme-alabei laguntzeko. Obrek erakutsi digute nola gurasoek dibortzioaren ardura hartzen duten eta harremana hobetzen duten familiaren ongizaterako.

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, obra guztietan **zaintza partekatua** islatzen da. Protagonistek zaintza partekatuaren inguruko ikuspuntu desberdinak dituzte, baina esanguratsua iruditu zaigu ideia batzuk errepikatu izana: bi etxe ditu (%77), bizitzeko bi modu desberdin (%69) eta tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean (%54).

Zaintza partekatuan umeei bitan banatu behar dira. Bi etxe dituzte, bat amarekin eta bestea aitarekin, horregatik haien gauzak bikoiztu egiten dira. Gurasoak banan-banan desberdinak ikusten dituzte, bakoitzak bere bizitzeko modua duelako. Tristura sentitzen dute astero guraso bati agur esan behar diotelako. Obretan ume batzuek zaintza partekatua modu positiboan bizitzen dute eta beste batzuei, berriz, zailagoa egiten zaie, eta horrek bat egiten du errealitatearekin.

Bukatzeko, umeei gurasoen **dibortzioa onartzen duten** ala ez aztertu dugu. Hipotesietan planteatu genuen bukaeran umearen partetik erantzun positibo bat egongo zela, eta emaitzekin egiaztatu ondoren, protagonista guztiek (%92), bat izan ezik, gurasoen dibortzioa onartzen dute. Teresa Colomerrek (2005) dioenez, gaur egungo haur literaturan obrak amaitzeko beste era bat da sortu da non pertsonaiek arazoa onartzen duten eta aurre

egiten dioten. Azkenean, umeeek ulertzen dute gurasoak ez direla elkarrekin egongo eta erabakitzen dute egoerari aurre egitea modu positibo batean.

Gaur egungo haur literatura lortzen ari da deserosotzat hartzen diren gaiak umeen eskueran egotea. Honi esker, umeeek arazoak bizitzaren parte direla ulertzen dute eta haien barneko arazoak konpontzeko gai sentitzen dira.

---

## HOBETZEKO PROPOSAMENAK

---

Ikerketa honek gaur egungo haur literaturan dibortzioak nolako trataera duen ezagutzeko aukera ematen digu. Gai honen inguruko ezagutza eta ikuspegia handitzeko, hobetu ahal diren alderdi batzuk proposatu nahi ditugu:

Obren hautaketari dagokionez, lan honen ondorioak hamabi obra literarioen analisietatik lortu dira. Uste dugu ikerketaren obren kopurua handitzen bada, lagin gehiago egongo direla, eta horrek emaitza zehatzagoak emango dituela.

Obren analisirako erabili diren tresnak osatu daitezke, aukera gehiago gehitzeko eta erabateko ikerketa bat egiteko, adibidez, obretan dibortzioari buruz tratatzen diren alderdi gehiago gehituz, hala nola, haurrak dibortzioari nola aurre egiten dio.

Bukatzeko, lan honek ez du bilatzen bakarrik gai honen inguruko alderdiak aditzera ematea, baizik eta haur literaturan gutxitan jorratzen diren gaiei buruzko analisisien eta ikerketen beharra aldarrikatzea, adibidez, bakardadea, jelosiak, edota sexualitatea.

---

## BIBLIOGRAFIA ETA INTERNETGRAFIA

---

### 7.1 Orokorra

- Abal, M., Laucirica, N., Villar, G. (2001). *Guía para padres y madres en situación de separación y/o divorcio - Cómo actuar con los hijos e hijas*. Gasteizko Udala, 5-27. Kontsultatuta 2019ko otsailaren 23an, in <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/58/00/5800.pdf>
- Amiguet, T. (2017ko otsailaren 25a). Divorcio made in Spain: un derecho con 85 años de historia. *La Vanguardia Española*. Kontsultatuta 2019ko martxoaren 12an, in <https://www.lavanguardia.com/hemeroteca/20170225/42221370479/divorcio-espana-historia.html>
- Arnal, J.I. (2017). *Hizkuntzaren eta literaturaren didaktika irakasgaia*. 2017-18 ikasturteko Haur Hezkuntza Graduako 3. mailako apunteak, editatu gabeak. Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
- Arnal, J.I. (2011). *El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008)*. (Tesi doktora). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU)
- Cantón, J., Cortés, M. R. & Justicia, M. D. (2002). Las consecuencias del divorcio en los hijos. *Psicopatología clínica, legal y forense*, 2(3), 47-66.
- Castells, P. (1993). *Separación y divorcio: efectos psicológicos en los hijos*. Madril: Editorial Planeta.
- Castells, P. (2014). *Crecer con padres separados*. Bartzelona: Plataforma
- Cifuentes, O., Milicic, N. (2012). Crisis en la infancia: ¿qué piensan, sienten y dicen los niños sobre la separación de sus padres? *Universitas Psychologica*, 11(2), 469-480. Kontsultatuta 2019ko martxoaren 12an, in <http://www.scielo.org.co/pdf/rups/v11n2/v11n2a10.pdf>

- Colomer, T. (2001). La enseñanza de la literatura como construcción del sentido. *Lectura y vida Revista Latinoamericana de lectura*, 4, 2-17.
- Colomer, T. (2005). El desenlace de los cuentos como ejemplo de las funciones de la literatura infantil y juvenil. *Revista de Educación*, 1, 203-216. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 5an, in [http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2005/re2005\\_16.pdf](http://www.revistaeducacion.educacion.es/re2005/re2005_16.pdf)
- Colomer, T. (2006). La educación sentimental en los álbumes infantiles actuales. *Casa de Leitura*, 1-11. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 5an, in [http://www.casadaleitura.org/portalpha/bo/documentos/ot\\_ed\\_sentimental\\_albumes\\_a.pdf](http://www.casadaleitura.org/portalpha/bo/documentos/ot_ed_sentimental_albumes_a.pdf)
- Elkar (2019). *Haur eta gazte literatura*. Donostia: Elkar. Kontsultatuta 2019ko urtarrilaren 19an, in <https://www.elkar.eus/eu/katalogoa/liburuak/haur-eta-gazte-literatura/02/1>
- Euskal Estatistika Erakundea. (2019). *Ezkontza-hausteen estatistika 2017.urtea*. Donostia: Eustat. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 14an, in [http://eu.eustat.eus/elementos/2017an\\_3555\\_ezkontza\\_desegin\\_ziren\\_Euskal\\_AEn\\_a\\_urreko\\_urtean\\_baino\\_1\\_gutxiago/not0016496\\_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/2017an_3555_ezkontza_desegin_ziren_Euskal_AEn_a_urreko_urtean_baino_1_gutxiago/not0016496_e.html)
- Espainia. Ministerio de Gracia y Justicia. (1981). *De los efectos comunes a la nulidad, separación y divorcio*. (Kz 90. artikulua). Madril: BOE.
- Fernández, E. eta Godoy, C. (2002). *El niño ante el divorcio*. Madril: Ediciones Pirámide.
- Instituto Nacional de Estadística. (2018). *Estadística de Nulidades, Separaciones y Divorcios Año 2017*. Madril: INE. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 14an, in [https://www.ine.es/prensa/ensd\\_2017.pdf](https://www.ine.es/prensa/ensd_2017.pdf)
- Kroen, W. C. (2002). *Cómo ayudar a los niños a afrontar la pérdida de un ser querido: un manual para adultos*. Bartzelona: Ediciones Oniro.
- Legarra, P. (2015). Dibortzioa: bide berri bat hasten da. *Hik hasi - Hazi hezi*, 14. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 14an, in <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20151020/dibortzioa-bide-berri-bat-hasten-da>



- Maxeiner, A. (2014). *¡En familia! Y otros parientes, Irakurketa gida*. Ignacio Aldecoa Kultura Etxea. Kontsultatuta 2019ko urtarrilaren 19an, in [https://www.galtzagorri.eus/irakurketa\\_gidak/dokumentuak/en-familia.pdf](https://www.galtzagorri.eus/irakurketa_gidak/dokumentuak/en-familia.pdf)
- Morgado, B. (2003). El divorcio desde una mirada de los niños. Una revisión teórica. *Familia, revista de ciencias y orientación familiar*, 26, 49-62. Kontsultatuta 2019ko apirilaren 14an, in <https://summa.upsa.es/pdf.vm?id=0000028383&page=1&search=&lang=es>
- Rodríguez, A. O. (1997). Tratamiento de la familia en la literatura infantil y juvenil contemporánea. *Lectura y vida*, 18. Kontsultatuta 2019ko maiatzaren 22an, in [http://www.lecturayvida.fahce.unlp.edu.ar/numeros/a18n3/18\\_03\\_Rodriguez.pdf](http://www.lecturayvida.fahce.unlp.edu.ar/numeros/a18n3/18_03_Rodriguez.pdf)
- Ttartalo (2019). *Haurrak, irakurgaiak, ezagutza liburuak eta ikasteko liburuak*. Donostia: Tarttalo. Kontsultatuta 2019ko urtarrilaren 19an, in <http://www.ttartalo.eus/eu/haurrak/katalogoa>
- X.X. (2016ko ekainaren 22a). *Se cumplen 35 años de la Ley de Divorcio en España*. Europapress. Kontsultatuta 2019ko martxoaren 12an, in <https://www.europapress.es/otr-press/cronicas/noticia-cumplen-35-anos-ley-divorcio-espana-20160622085944.html>
- X.X. (2017). *Divorcio*. Significados. Kontsultatuta 2019ko martxoaren 12an, in <https://www.significados.com/divorcio/>

## 7.2 Analizatutako obrak

Amavisca, L. eta Betania, Z. (2017). *El espejo en la casa de mamá / El espejo en la casa de papá*. Madrid: NubeOcho

Balzaretti, C. eta Decis, A. (2010). *Príncipe de dos palacios*. Madrid: SM, D.L.

Carbonell, P. eta Rosique, S. (2017). *Valentina tiene dos casas*. Madrid: Jaguar

Klamburg, L. (2011). *Estoy triste mis padres se separan*. Barcelona: Bellaterra

Koppens, J. eta Nijs, A. (2016). *Mila bi etxetan bizi da*. Donostia: Tarttalo

Lamblin, C., Faller, R. eta Roederer, C. (2002). *Los padres de Sara se separan*. Zaragoza: Edelvives

Licitra, J. eta Rosique, S. (2015). *Con ojos de niño*. Madrid: Cuentos de Luz

Pétigny, A. eta Delvaux, N. (2007). *Kamile: aita eta ama ez daude haserre*. Donostia: Tarttalo

Rico, S. (2013). *¡Ya basta!* Madrid: Ediciones IDAMPA

Sauermann, M. eta Heidschötter, U. (2013). *El niño y la bestia*. Barcelona: Picarona

Smet, M. eta Talsma, N. (2008). *Vivo en dos casas*. Barcelona: Malsinet

Vidal, S. eta Thomas, L. (2017). *Hariaren gainean*. Donostia: Tarttalo

## ERANSKINAK

### I. ERANSKINA: Umeek gurasoen dibortzioagatik izaten dituzten erantzun emozionalen ezaugarriak (Encarna Fernández eta Carmen Godoy, 2002: 58)

Garapen etapa	Egoera kognitiboa	Erantzun emozionala (0-2 urte pasa eta gero)
<b><i>Eskolaurreko umeak (3-5 urte)</i></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dibortzioa banaketa fisiko bezala ulertzen dute.</li> <li>- Dibortzioa aldi baterako dela pentsatzen dute.</li> <li>- Hartu-eman afektiboak nahasten dituzte.</li> <li>- Dibortzioa bere errua dela pentsatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Beldurra</li> <li>- Erregresioa</li> <li>- Zalantza, nahasteak</li> <li>- Ordezkapen afektiboak</li> <li>- Fantasia negatiboak</li> <li>- Haserrea</li> <li>- Erruduntasuna</li> <li>- Behar emozionalak</li> </ul>
<b><i>Eskola-adineko umeak (6-8 urte)</i></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Dibortzioaren helburua ulertzen dute.</li> <li>- Gurasoen arteko gatazken alderdi psikikoak eta fisikoak bereizten dituzte.</li> <li>- Dibortzioa ulertzen dute baina haien jarrerak gurasoen erabakietan eragina dutela pentsatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tristura</li> <li>- Gurasoak faltan botatzen dituzte</li> <li>- Haserrea</li> <li>- Erantzukizun handia</li> <li>- Gurasoak elkartzearen fantasia</li> </ul>
<b><i>Eskola-adineko umeak (9-12 urte)</i></b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Psikologikoki dibortzioaren arrazoiak ulertzen dituzte.</li> <li>- Guraso bakoitzaren ikuspuntua bereizten dute.</li> <li>- Ez dira dibortzioaren errudunak sentitzen.</li> <li>- Dibortzioaren alde positiboa ikusten dute, hau da, gurasoen arteko liskarrak bukatu direla.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antsietatea</li> <li>- Nortasun aldaketak</li> <li>- Somatizazioak</li> <li>- Guraso batekin alienatzen dira.</li> </ul>

## II. ERANSKINA: OBREN ANALISIAK

### 1. *El espejo en la casa de mamá / El espejo en la casa de papá* (Amavisca eta Betania, 2017)

<b>IDAZLEA:</b> Luis Amavisca			
<b>IRUDIGILEA:</b> Betania Zacarias			
<b>IZENBURUA:</b> El espejo en la casa de mamá / El espejo en la casa de papá			
<b>ARGITALETXEA:</b> NubeOcho			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2017. Espainia. Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Liburu honek bi istorio ditu. Protagonistak bi etxe ditu: aitarena eta amarena. Bi etxetan oso pozik sentitzen da, aita edo amaren konpainiaz disfrutatu ahal duelako. Bi etxetan objektu berezi bat dago: etxe bat bestearekin harremanetan jartzen duen ispilu magikoa.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista seme bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Gurasoek etengabe liskarrak izaten zituzten.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	-	-	-	-	X	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra				
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna	Amorrua	Besteak
	-	X	-	X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?				
	Bai			Ez	
	X			-	

<b>OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?</b>				
Bai				Ez
X				-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan				
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak
X	X	-	-	-
<p><b>OHARRAK:</b> Liburuaren egiturak kontatzen digu zaintza partekatua: alde batetik daukagu amaren etxea eta, beste aldetik, aitaren etxea. Liburuaren alde bakoitzean protagonistak kontatzen du bi etxe dituela eta haien arteko desberdintasunak. Aita eta amarekin bizitzea oso desberdina da baina pozik sentitzen da, hala ere, bietan ispilu magiko bat dago eta bi etxeak lotzen ditu.</p>				

<b>UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?</b>	
Bai	Ez
X	-
<p><b>OHARRAK:</b> Protagonistak gurasoen dibortzioa onartzen du. Nahiz eta gurasoak desberdinak izan maitatuta sentitzen da, eta bere bizimodu berria gustatzen zaio.</p>	

## 2. *Príncipe de dos palacios* (Balzaretti eta Decis, 2010)

<b>IDAZLEA:</b> Carla Balzaretti			
<b>IRUDIGILEA:</b> Anne Decis			
<b>IZENBURUA:</b> Príncipe de dos palacios			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ediciones SM			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2010. Espainia (Madril). Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Ipuin honetan Lucio printzearen istorioa kontatzen da, bi palazioetan bizi den umea da: bere aitarena, erregea, eta bere amarena, erregina. Bertsotan idatzitako ipuina da eta gurasoak dibortziatuak dituen ume baten istorioa kontatzen da.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista Lucio deitzen da eta seme bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Ipuinean kontatzen da Lucio erreinu batean jaio zela baina egun batean zatitu egin zela, erreginak gauza bat nahi zuelako eta erregeak beste gauza bat. Haien bideak banatu ziren eta erreinua bitan zatitu zen.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
-	-	-	-	-	-	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
X	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	-	-		-	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	-			-		

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	-	-	-	
<p>OHARRAK: Luciok zaintza partekatua modu positiboan bizi du. Printze bat da eta bi palazioetan bizi da, astean zehar erreginarekin (ama) egoten da eta asteburuetan erregearekin (aita). Biekin oso ondo pasatzen du, amarekin eskolara joaten da, janaria prestatzen eta irakurtzen dute. Aitarekin, berriz, paseatzera joaten dira, aiton-amonak bisitatzen dituzte eta elkarrekin ikasten dute.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: : Bukaeran Luciok esaten du ulertzen duela zergatik erreinuak banandu egin diren eta biekin pozik sentitzen dela. Umeak esaten du egoera ez dela arraroa edo tristea, baizik eta desberdina.</p>	

### 3. *Valentina tiene dos casas* (Carbonell eta Rosique, 2017)

<b>IDAZLEA:</b> Paula Carbonell			
<b>IRUDIGILEA:</b> Susana Rosique			
<b>IZENBURUA:</b> <i>Valentina tiene dos casas</i>			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ediciones Jaguar			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2017. Espainia (Madril). Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Valentinak bi etxe ditu eta bakoitzean gauza pila ditu. Batzuetan ez daki non lo egingo duen, bere jostailuak faltan botatzen ditu... Egun batzuetan ez dago berak nahi duena nahi duen momentuan, hala ere, berak badaki ama eta aita beti egongo direla bere zain.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	-	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista Valentina deitzen da eta alaba bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Ez dira dibortzioaren arrazoiak azaltzen.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	-	-	X	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
X	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	-	-		-	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	-			-		

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	-	-	
<p>OHARRAK: Valentinak bi etxe, bi logela, bi ohe... ditu eta asko gustatzen zaio. Baina egun batzuetan triste sentitzen da, berak nahi dituen jostailuak edo gurasoak ez daudelako behar dituen momentuan. Neskak konponbide bat bilatzen du, bere jostailuak koaderno batean marrazten ditu baina konturatzen da koaderno ahaztu zaiola, azkenean, bere jostailuak imajinatzea erabakitzen du.</p> <p>Enara batekin konparatzen da, denbora erdian leku batean dagoelako eta beste erdian beste leku batean. Enarak bezala pozik sentitzen da beti etxera bueltatzen denean eta aita edo ama bere zain daudelako.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: Nahiz eta Valentinarentzat zaintza partekatua zaila den, egoerari aurre egiten dio eta pozik sentitzen da.</p>	

#### 4. *Estoy triste. Mis padres se separan* (Klamburg, 2011)

<b>IDAZLEA:</b> Laura Klamburg			
<b>IRUDIGILEA:</b> Laura Klamburg			
<b>IZENBURUA:</b> Estoy triste. Mis padres se separan			
<b>ARGITALETXEA:</b> Edicions Bellaterra			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2011. Espainia (Bartzelona). Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Gurasoen dibortzioa onartzea zeregin zaila izaten da. Liburu honetako umearentzat gurasoen dibortzioa berri ikaragarria da, hainbat sentimendu eta emozio sentitzen du: erruduntasuna, haserrea, beldurra... Sentimendu hauek bere barnean azaleratu dira eta bere familiaren egoera berria onartu behar du.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonistak anaia bat dauka.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Umeak esaten du ez duela ulertzen zergatik banandu diren, elkar maitatzen zutelako. Geroago, umeak esaten du bere gurasoak elkar asko maitatu dutela eta momentu asko bizi dituztela, baina banandu egin direla bakoitzak bere bidea hartzeko.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	X	X	X	-	X	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	X	-		X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	-			X		

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	-	-	
<p>OHARRAK: Nahiz eta etxe desberdinetan bizi, jarraitzen dute familia bat izaten. Familia berezia dela esaten du, ez ona ez txarra, baizik eta desberdina.</p> <p>Protagonistak esaten du aitaren eta amaren izaerak oso desberdinak direla eta, horrekin batera, bizitzeko modua ere. Dena oso desberdin egiten dute: askaria, afaria, ohea... Lehen biak berdin ikusten zituen baina orain hasi da bakoitza ezagutzen.</p> <p>Umearentzat bi etxe izatea nahaste bat da, ez du ulertzen zergatik etengabe mugitu behar den alde batetik bestera. Zergatik ez dira nire gurasoak mugitzen? pentsatzen du. Hala ere, saiatzen da egoeraren alde positiboa bilatzen, eta bere gurasoek atentzio gehiago ematen diotela sentitzen du.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: Liburuan zehar protagonistari oso zaila egin zaio gurasoen dibortzioa onartzea, hainbat sentimendu eta emozio desegoki bizitzen ditu. Egoera latza izan da baina bere familiaren laguntzarekin onartu egin du. Bukaeran umeak esaten du familiaren egoera berrira egokituko dela, eta onartzen du beti gauzak ezin direla nahi duen moduan izan, eta esfortzu handi bat egin behar dela bizitzaz gozatzeko.</p>	

## 5. Mila bi etxetan bizi da (Koppens eta Nijs, 2016)

<b>IDAZLEA:</b> Judith Koppens			
<b>IRUDIGILEA:</b> Anouk Nijs			
<b>IZENBURUA:</b> Mila bi etxetan bizi da			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ttartalo			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2016. Holanda (Amsterdam). Nederlandera	2016
X	-		
<b>Laburpena:</b> Milak bi etxe ditu: batzuetan, amaren etxean bizi da, eta bestetan, aitarenean. Amaren etxean Milak hortzak eskuila berdearekin garbitzen ditu. Aitaren etxean, berriz, eskuila gorri batekin. Egia esan, ez da gauza bera izaten amarekin egotea edo aitarekin. Baina amatxorentzat eta aitaxorentzat Mila munduko neskatilarik maitagarriena da.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	-	-	-	-	-	
<p><b>OHARRAK:</b> Protagonista Mila deitzen da eta alaba bakarra da.  Mila eta bere gurasoak gurea ez den etnia batekoak dira. Liburuan ez da aipatzen nongoak diren baina haien ezaugarri fisikoengatik afrikarrak izan ahal dira.</p>						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Ez dira dibortzioaren arrazoiak azaltzen.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	-	-	-	-	-	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra				
X	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna	Amorrua	Besteak
	-	-	-	-	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?				
	Bai			Ez	
	-			-	

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	-	-	-	
OHARRAK: Mila amarekin egun batzuk pasatzera joaten da. Aitarekin eta amarekin bizitzearen arteko desberdintasunak kontatzen ditu.					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
OHARRAK: Milak gurasoen dibortzioa onartzen du. Amarekin edo aitarekin egotea oso desberdina da baina berak modu positiboan ikusten du eta gustatzen zaio. Nahiz eta desberdintasunak dauden, maitatuta sentitzen da.	

**6. Los padres de Sara se separan (Lamblin, Faller eta Roederer, 2002)**

<b>IDAZLEA:</b> Christian Lamblin			
<b>IRUDIGILEA:</b> Régis Faller eta Charlotte Roederer			
<b>IZENBURUA:</b> Los padres de Sara se separan			
<b>ARGITALETXEA:</b> Edelvives			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2001. Frantzia (Paris). Frantsesa	2002
X	-		
<b>Laburpena:</b> Sararen gurasoek egunero liskarrak dituzte eta umea oso triste sentitzen da. Sarak bere gurasoen arteko liskarrak jostailuzko errege eta erregina baten bidez irudikatzen ditu. Jostailu hauen bitartez, gurasoek Sarari kontatzen diote elkarrekin ez daudela ondo eta bananduko direla.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	-	-	-	-	-	

OHARRAK: Sara eta bere gurasoak gurea ez den etnia batekoak dira. Liburuan ez da aipatzen nongoak diren baina haien ezaugarri fisikoengatik afrikarrak izan ahal dira. Protagonista alaba bakarra da.

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	
	-	-		

Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?

Gurasoek Sarari azaltzen diote ez direla zoriontsuak, eta bananduko direla. Haien esaten diote elkar maite dutela baina lagunak bezala.

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	X	-	-	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra				
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna	Amorrua	Besteak
	-	X	X	-	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?				
	Bai			Ez	
	X			-	

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	-	X	-	-	
<p>OHARRAK: Sarak bere aita eta amarekin bizi da baina zaintza partekatuaren gaia aipatzen da. Amak esaten du erregea beste "palazio" batera bizitzera joan behar dela eta hartzak (epailea) erabakiko duela printzesa norekin biziko den.</p> <p>Aitak beste palazio bat eraikitzen du erregearentzat, eta printzesa bi etxetan paseatzen da. Sarak esaten du printzesa triste sentitzen dela, guraso batekin dagoenean bestearekin gogoratzen delako.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
-	X
<p>OHARRAK: Sarak ulertzen du dibortzioa baina ez dakigu onartzen duen ala ez. Liburuaren bukaeran, Sarak bere gurasoei erregea eta erregina bezala bananduko diren galdetzen die. Gurasoek erantzuten diote bi etxe izango dituela eta beti maiteko dutela. Ez da agertzen neskaren iritzia edo dibortzioaren onarpena.</p>	

## 7. *Con ojos de niño* (Licitra eta Rosique, 2015)

<b>IDAZLEA:</b> Jimena Licitra			
<b>IRUDIGILEA:</b> Susana Rosique			
<b>IZENBURUA:</b> Con ojos de niño			
<b>ARGITALETXEA:</b> Cuentos de Luz			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2015. Espainia (Madril). Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Jose Luis kolore berdeko etxe batean bizi zen oso alai, baina egun batean bere gurasoak dibortziatu ziren eta bi ume desberdinetan bihurtu zen: aitarekin bizi den umea eta amarekin bizi den umea.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonistak Jose Luis du izena eta seme bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Ez dira dibortzioaren arrazoiak azaltzen.				

## DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	-	X	X	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	X	-	X		-	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	X			-		

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	X	-	
OHARRAK: Jose Luis bitan zatitu zen, Jose amarekin bizitzera joan zen eta Luis aitarekin. Bakoitza etxe batean bizi zen eta bizimodu desberdinak zituzten. Bi umeak osatugabeak sentitzen ziren.					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
OHARRAK: Ama eta aita elkartu ziren irtenbide bat bilatzeko baina ez ziren ados jartzen. Gurasoak saiatu ziren haien arteko harremana hobetzen, elkarrekin hitz egin zuten eta akordio batera iritsi ziren. Azkenean, Jose eta Luis elkartu ziren eta ume bakarra bihurtu zen. Protagonista dibortzioa onartzen du, gurasoen arteko harremana konpondu egin zen eta horrekin batera, umea berriro ondo sentitu zen. Bere egoera berria onartzen du eta zoriontsu sentitzen da.	

## 8. Kamile: aita eta ama ez daude haserre (Pétigny eta Delvaux, 2007)

<b>IDAZLEA:</b> Aline de Pétigny			
<b>IRUDIGILEA:</b> Nancy Delvaux			
<b>IZENBURUA:</b> Kamile: aita eta ama ez daude haserre			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ttartalo			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2007. Frantzia. Frantsesa	2007
X	-		
<b>Laburpena:</b> Jolas-orduan Unai triste samar dago. Gurasoak banandu egin dira eta kezkatuta dago, beharbada, bere erruz banandu direla pentsatzen duelako. Kamilek antzeko pentsamendua izan du bere gurasoen arteko eztabaida ikusi duenean.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonistak Kamile eta bere laguna, Unai, dira. Unairen gurasoak banandu egin dira. Kamileren gurasoak ez dira banandu, baina eztabaida batengatik dibortziatuko direla pentsatzen du.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Unaik esaten du gurasoak asko eztabaidatzen zutela eta agian bere erruagatik izan dela. Kamileren gurasoek logela batengatik eztabaida bat izan dute. Neskak pentsatzen du bere gurasoak bananduko direla Unairen gurasoak bezala. Gainera, pentsatzen du bere erruarengatik izan dela.				

### DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	-	X	-	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	X	-		X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	X			-		

<b>OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?</b>					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	-	-	
OHARRAK: Unai kontatzen du nolakoa den bere bizimodua gurasoen dibortzioarengatik: bietan ospatzen du bere urtebetetzea, bi logela ditu, bat aitaren etxean eta bestea amaren etxean.					

<b>UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?</b>	
Bai	Ez
X	-
OHARRAK: Amak kontatzen dio Kamileri aitarekin haserretu dela baina ez direla bananduko. Gainera, amak esaten dio haserretzen direnean ez dela inoiz bere erruagatik. Unai bere gurasoen dibortzioa onartzen du, orain ondo sentitzen da eztabaidatzen ez dutelako. Umeak pentsatzen du dibortzioa bere erruagatik izan dela, baina Kamilek esaten dio berak errua ez daukala, aitaxoren eta amatxoren maite kuttunak direlako.	

**9. ¡Ya basta! (Rico, 2013)**

<b>IDAZLEA:</b> Susana Rico Calleja			
<b>IRUDIGILEA:</b> Susana Rico Calleja			
<b>IZENBURUA:</b> ¡Ya basta!			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ediciones IDAMPA			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2013. Espainia (Madril). Gaztelania	-
-	X		
<b>Laburpena:</b> Batzuetan aitak eta amak ezin dute elkarrekin bizi, baina ez dira konturatzen: jakinarazi behar diegu eta gogoratu behar dute familiaren egoera aldatzen dela baina ez maitasuna, hori mantentzen da. Dibortzioa umearen ikuspegitik tratatzen duen liburua da: umeak bere gurasoak dibortziatea nahi du.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista seme bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Gurasoek etengabe liskarrak izaten dituzte.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
-	-	X	X	-	-	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	X	-		X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai			Ez		
	X			-		

<b>OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?</b>				
Bai				Ez
X				-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan				
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak
-	-	-	-	X
<p>OHARRAK: Gurasoak oraindik ez dira banandu baina, protagonistak esaten du hobeto izango dela gurasoak banantzea eta azaltzen du nola partekatu behar duten bere zaintza. Amarekin astelehenak, asteazkenak eta ostiralak pasatuko ditu, eta aitarekin, berriz, astearteak, ostegunak eta larunbatak. Igandeak atsedean hartzeko erabiliko ditu.</p>				

<b>UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?</b>	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: Gurasoen arteko arazoak konpontzeko, protagonistak dibortziaztea proposatzen die. Umeak onartzen du dibortzioa eta modu positiboan ikusten du. Nahiz eta aita eta ama elkarrekin ez egon, beti maitatuko ditu.</p>	

## 10. *El niño y la bestia* (Sauermann eta Heidschötter, 2013)

<b>IDAZLEA:</b> Marcus Sauermann			
<b>IRUDIGILEA:</b> Uwe Heidschötter			
<b>IZENBURUA:</b> El niño y la bestia			
<b>ARGITALETXEA:</b> Picarona			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2013. Alemania (Leipzig). Alemana	2013
X	-		
<b>Laburpena:</b> Liburu honetan ume batek kontatzen du nola bere ama piztia bihurtu den. Ama piztia bihurtzeak erantzukizun handia dakar, piztiak maitasun eta laguntza handia behar duelako. Umea egoeraz arduratu behar da piztia triste ez egoteko eta bere buruaz ere arduratu behar da, piztiak gauza asko ahazten dituelako.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
-	X	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista seme-bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Ez dira dibortzioaren arrazoiak azaltzen.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	-	X	-	-	X	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra				
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna	Amorrua	Besteak
	X	X	-	X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?				
	Bai			Ez	
	-			X	

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
-	-	-	-	X	
<p>OHARRAK: Zaintza partekatua ez da modu zehatz batean islatzen, baina obran zehar protagonistak kontatzen digu nola bizi den amarekin eta nolakoa den egoera etxean. Obran ere aita agertzen da umearen bila joaten denean eta horrek esan nahi zaintza partekatzen dutela.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: Protagonistak gurasoen dibortzioa onartzen du, obran batez ere kontatzen da nola umeak ikusten duen bere ama dibortzioaren eraginez. Umeak bere gurasoak piztiak bezala irudikatzen ditu eta istorio honetan kontatzen da nola laguntzen dio bere ama-piztiari egoera honi aurre egiten. Umea laguntzaile bezala aritzen da eta gurasoen ardura hartzen du.</p>	

## 11. *Vivo en dos casas* (Smet eta Talsma, 2008)

<b>IDAZLEA:</b> Marian de Smet			
<b>IRUDIGILEA:</b> Nynke Talsma			
<b>IZENBURUA:</b> Vivo en dos casas			
<b>ARGITALETXEA:</b> Malsinet Editor			
Itzulpena		Argitaratze data.Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2008. Belgika eta Holanda. Nederlandera	2008
X	-		
<b>Laburpena:</b> Ninaren gurasoak dibortziatuta daude eta bakoitza etxe batean bizi da. Ninak bi etxetan bizi da, batzuetan amarekin eta beste batzuetan aitarekin. Liburuak kontaktzen digu nola Ninak aurre egiten dio egoera mingarri honi.			

NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	-	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista alaba bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren ondorioak azaltzen dira?				
Ninak kontatzen du bere aitak egin zituen gauza batzuk bere amari ez zitzaizkiola gustatu. Amak esandako gauzengatik aita triste jarri zen, liskarrak sortu ziren eta elkarrengandik asko urrundu ziren.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	-	-	X	-	-	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra					
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna		Amorrua	Besteak
	-	X	-		X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?					
	Bai				Ez	
	X				-	

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	-	-	
<p>OHARRAK: Ninak guraso batekin dagoenean bestea faltan botatzen du, eta horrekin batera etxe bakoitzaren ingurua.</p> <p>Ninak bi maskota ditu, katua eta hamsterra, hauek ere banandu egin dira, hamsterra amarekin bizi da eta katua aitarekin.</p> <p>Neskak esaten du bere gurasoekin telefonoz hitz egiten duela eta bere urtebetetzea bi aldiz ospatzen duela.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p>OHARRAK: Liburuaren bukaeran Ninak onartzen du bi etxetan bizi dela. Nahiz eta berarentzat egoera arraroa izan, ona dela esaten du.</p>	

## 12. *Hariaren gainean* (Vidal eta Thomas, 2017)

<b>IDAZLEA:</b> Séverine Vidal			
<b>IRUDIGILEA:</b> Louis Thomas			
<b>IZENBURUA:</b> Hariaren gainean			
<b>ARGITALETXEA:</b> Ttartalo			
Itzulpena		Argitaratze data. Herria. Jatorrizko hizkuntza	Itzulpen urtea
Bai	Ez	2017. Frantzia. Frantsesa	2017
X	-		
<b>Laburpena:</b> Zaintza partekatua bere erara ulertzen duen neska baten istorioa kontatzen da. Amaren eta aitaren etxean artean bizi da eta berarentzat bi mundu desberdinak dira, astebete irauten duten bi mundu. Denbora azkarrago igaro dadin, hari bat luzatu du bere bi bizitzen artean eta funanbulista bezala hari horren gainean ibiltzen da.			



NOR DA PROTAGONISTA?						
Haurra		Nerabea		Animalia gizartaratua		Animalia
Neska	Mutila	Neska	Mutila	Arra	Emea	-
X	-	-	-	-	-	
OHARRAK: Protagonista alaba bakarra da.						

NOLAKOAK DIRA GURASOAK?				
Bikote mota				
Heterosexuala	Homosexuala		Etnia berekoen artekoa	Etnia ezberdinen artekoa
X	E+E	G+G	X	-
	-	-		
Dibortzioaren arrazoiak azaltzen dira?				
Gurasoek ez dute elkar maite, ez dute elkar musukatzen ezta masailean ere.				

**DIBORTZIOAK ERAGITEN DITUEN SENTIMENDUAK**

Zer sentitzen du umeak?

Tristura	Beldurra	Erantzukizun handia	Haserrea	Erruduntasuna	Bakardadea	Eskola arazoak	Gurasoak elkartzearen fantasia	Besteak
X	X	-	-	X	X	-	X	-

Nolakoa da gurasoen arteko harremana?

Ona	Txarra				
-	Komunikazio falta	Liskarrak	Desadostasuna	Amorrua	Besteak
	X	-	X	X	-
	Gurasoen arteko harremana konpontzen da?				
	Bai			Ez	
	-			X	

OBRAN ZAINZA PARTEKATUA ISLATZEN DA?					
Bai					Ez
X					-
Zaintza partekatuaren eragina umearengan					
Bi etxe ditu	Bizitzeko bi modu desberdin	Tristura aita eta ama elkarrengandik aldentzean	Bi ume bezala sentitzen da	Besteak	
X	X	X	X	-	
<p><b>OHARRAK:</b> Obra osoan zaintza partekatuaren ondorioak islatzen dira. Protagonistak kontatzen du aitaren eta amaren etxeak auzo berdinean daudela baina etxe bakoitzeko bizimodua oso desberdina dela. Aitarekin modu batean egiten ditu gauzak eta amarekin beste modu batean: bi etxe, bi logela, jateko bi modu, dibertitzeko bi modu, janzteko bi modu, musika eta usain desberdinak...</p> <p>Neskak bi izateko modu ditu: amarekin elkar besarkatzen eta hitz goxoak esaten dituzte, aitarekin, berriz, zilipurdika elkarrekin irribarre egiten dute.</p>					

UMEAK DIBORTZIOA ONARTZEN DU?	
Bai	Ez
X	-
<p><b>OHARRAK:</b> Protagonistak gurasoen dibortzioa hari baten ganean ibiltzea bezala irudikatzen du. Askotan bere haria korapilatzen dela sentitzen du, hau da, dibortzioaren egoera zaila egiten zaio. Egoerari aurre egiten dio eta bukaeran esaten du hariaren ganean ibiltzen jarraituko duela, eta etorkizunean orain den berdina izango dela, funanbulista.</p>	